



Loinatzak eta Azintzioak

Ordiziako
azoka
ostiraletan
ere bai



Xabier
Mendiguren
Elizegik liburu
berria



Aizkorriko
mendi martxa




K I M E T Z
I L E A P A I N D E G I A

VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
babezteko gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTIAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.



Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72

Senpere, 7

BEASAIN

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Eurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Pako Zubeldia, Oihana Sarasola, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Patxi Telleria eta Aitor Diaz de Espada.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako
Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta
GOIERRIKO UDALEK
diruz lagundutako
aldizkaria



Ordiziako azoka ostiral arratsaldeetan ere bai

Ordiziako Udalak bultzada berria eman nahi dio Ordiziako azokari. Asteazkeneko azokaz gain, ostiral arratsaldeetan ere, 4,30etatik 8,30etara, kalitatezko bertako produktuak erosteko aukera izango da, Garagartza plazan. Apirilaren 26an egin zen azoka berriaren aurkezpena eta Alejandra Iturrioz alkateak adierazi zenez, "Ordiziako mendeetako peri eskaintzarentzako posizionamendu berri lortzea eta nekazaritzako kalitatezko elikagaien euskal hiriburu bihurtzea" du helburu Ordiziak.

Joan den udazkenean Ordiziako Plaza Nagusia berritzeari ekin zion Udalak. Bultzada berria eman nahi dio azken 500 urte hauetako asteazkeneko azokari. Asteazkeneko azokako nekazal elikagaien eskaintza, kontsumitzailearen ohitura aldatetara egokitu nahi du Udalak. "Etxeko andreak, eguneroko erosketak egiten dutenek soldatapeko lanean hasi direnez, eta hirietako bizi estilo berriak kontuan hartuz gero, hau da, erosketak egiterakoan azkartasuna eta erosotasuna gailentzen direla, gero eta erosle gehiago biltzen di-

ra erosotasuna gailentzen direla, gero eta erosle gehiago biltzen dira aste bukatetako egunetan, orduan izaten baita denbora libre gehiago", adierazi zuen alkateak. Bezero berriak erakarri nahi dira, kalitateari gero eta garrantzia handiagoa ematen zaion garai honetan. "Kalitatea izango da ostiraleroko peria berriaren ikurra eta horrek isla izango du ekoizleei eskatuko betebeharretan". Saltoki kopuru mugatua izango da eta lehentasuna izango dute Goierri eta Gipuzkoako ekoizleek, nahiz eta beraien eskaintzaren espezializazioaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako eta Iparraldeko gainerako ekoizleak ere onartuko diren. Barazkiak, garaiko fruituak eta fruitu lehorrak, landare eta loreak, mermelada eta irasagar-gozokiak, artisautza kontserbak, gaztak, hestebeteak, ahate jakia, ogia, pastelak, sagardoa eta txakolina izango dira salgai. Saltokiaren diseinua ere aldatu egingo dute.

Guztiaren ikurra ere berria izango da: Plaza Nagusiko aterpeko zutabea.

(Informazio gehiago, hurrengo alean).

Goierritarra Goierrikan kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Jon Gorrotxategi atxiloturik

Beasaingo Jon Gorrotxategi, Batasunako Mahai Nazionalakidea, atxilotu egin zuen Polizia Nazionalak apirilaren 29an. ETAre fidantza sistema-rekin lotura izatea leporatu dio Baltasar Garzon Entzutegi Nazionalako epaileak. Maiatzaren 2an deklaratu zuen Garzonen aurrean eta kartzelan sartzeko agindua eman zuen.

Jose Maria Zaldua atxiloturik

Ezkio-Itsasoko Jose Maria Zaldua Korta ustezko ETako kidea atxilotu zuen Ziburun (Lapurdi) Frantziako Poliziak, apirilaren 19an. Espainiako Justiziak, 1977 eta 1985 urte bitartean 16 hilketatan parte hartzea leporatzen dio. Zalduaren aurka nazioarteko atxilotze agindua zegoen 1986tik. 1985ean ihes egin zuen Zalduak Ipar Euskal Herrira. Geroago Aljerian izan zen eta berriz ere Ipar Euskal Herrira itzuli aurretik, Uru-guain. 53 urte ditu Zalduak.

Andoni Urrestarazu kalean

Andoni Urrestarazu ordiziarra aske gelditu zen apirilaren 24an, 8 urte kartzelan egin ondoren. 1994an atxilotu zuten Beasainen Urrestarazu eta kale erasoetan parte hartzeagatik epaitu zuten ordiziarra. 1999ko abuztutik baldintzapeko askatasunean beharko luke. Apirilaren 27an egin zitzaion ongi etorria Ordiziako plaza nagusian.



Kazetariak Goierriin

Maiatzaren 2tik 4ra, Estatu Espainiarreko hainbat kazetari Goierriin izan genituen, Goiturrek gonbidatuta. Goierriko turismo eskaintza ezagutu eta beraien komunikabideetan zabal dezaten da helburua. El Periodico de Cataluña, La Vanguardia eta El Pais egunkariak, eta Infortursa, Mas viajes, Turismo y aventura, Escapada, Peninsula, Descubrir eta Editur aldizkarietako kazetariak izan ziren etorri zirenak.

Expovacaciones

Bilbon, maiatzaren 9tik 12ra bitartean egingo den Expovacaciones azokan, Goierriko turismo eskaintza erakusgai izango da.

Azpiegiturak aldarrikatu dituzte Aralarko artzainek

Maiatzaren 1ean Enirio-Aralar Mankomunitateak antolatutako Aralarko larreen irekierako festan ez zen ardirik izan. Artzainek azpiegiturak aldarrikatu zituzten, 'Larreen irekiera gaur. Bideena noiz' leloa zeukan pankartaren azpian. EHNE sindikatuak emandako datuen arabera, 42 artzainek eramaten dituzte artaldeak Aralarra, 18.000 ardi inguru.

Protesta ekitaldia albo batera utziz, Larraitzen festa giroa izan zen nagusi.

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



x LEIHOAK, ATE-AK eta abar

x ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

ARAMAKO TABERNA

berriro zabalik!

Menuak

Asteburu etako menuak

Karta

© 943 888 953

Aramako plaza

ARAMA

KAFA TXIGORTZEN DUGU



KAFE eta TE denda

Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 ORDIZIA

Txiste eta pasadizo idatzien lehiaketa

Txiste edota pasadizo bitxiren bat buruan baduzu pasa ezazu lehenbailehen paperera eta bidali AEKra. Izan ere Goierri eta Zumarragako AEK-k antolatuta XI. Txiste eta Pasadizo Idatzien lehiaketa jokoan da jada. 16 urtetik gora badituzu parte har dezakezu soilik eta txiste edota pasadizoak euskalkian nahiz euskara batuan idatziak izango dira. 3 txiste onenek bina afariko saria izango dute zain, Aramako Toki Alai jatetxean, Beasaingo Artzai Enean eta Ezkio-Itsasoko Labekoan.

Txisteak jasotzeko azken eguna maiatzaren 15a izango da eta helbide honetara bidali behar dira: Goiztiri AEK, 116 posta kutxa, 20240 Ordizia. E-mailez ere bidal ditza-kezu txisteak (beasain@aecknet.net).

Patxi Ezkiaga: 'Uso bat gehiago'

Legorretako idazleak 'Uso bat gehiago' prosa poetikodun liburua aurkeztu zuen apirilaren 17an, Ibaizabal etxearen 'Gailurren' bildumaren barruan. 59 testu motz dakartza, idazlearen adina bezalaxe. Guztiek ere gogoetarako gonbi-tea egiten dute. Narrazio oso-oso motzak, sententzia tanke-rako testuka, olerkiak... denetarik.

Joxan Ormazabal: 'Irri eta barre'

Zegamarrak liburu berria aurkeztu zuen apirilaren 26an: 'Irri eta barre'. Ormazabalek kontakizun motzak, ipuin la-burrak, igarkizunak eta era askotako hitz-jokoak bildu ditu. Sei urtetik gorakoentzako liburua da.

Ander Iturriotz: 'Mugaren ariketa'

Elkar argitaletxeak ordiziarraren 'Mugaren ariketa' poesia bilduma kaleratu du. Euskal Herriko Unibertsitateko ira-kaslea da Ander Iturriotz. 80ko hamarkada hasieran bi libu-ru argitaratu zituen, 'Birundak' eta 'Goierri'. Hala ere, ez omen du liburu berriak aurrekoekiko antzekotasun handie-girik.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Azken hamabost urteetan bezala, dagoeneko martxan jarri du HABEk, 2002. urteari dagokion egonaldiak familia euskaldu-netan plangintza. Euskara ikasi edo sakondu nahi dutenei fa-milia euskaldun batean hilabete edo bi pasatzeko aukera es-kaintzea da helburua, bertan biziz, bertako ingurunea, hizkun-tza eta, oro har, kultura ezagutu eta praktikatzeko aukera izan dezaten. 97 egonaldi eskaintzen dira Araba, Bizkaia, Gipuz-koa, Nafarroa eta Nafarroa Beherean.

Ikasleek uztailan, abuztuan eta irailean izango dute auke-ra familia euskaldunetan bizi izateko. 18tik 45 urtera bitarte-ko adina izatea beharrezkoa dute ikasleek, baita HABEk fin-katuriko euskalduntzeko programaziorako 8. urratsa edo ba-liokidea gainditua izatea ere.

Programa horretan parte hartu nahi duten ikasleek bidali behar duten dokumentazioa hauxe da: izena emateko orria, behar bezala beteta; Nortasun Agiriaren edo pasaportearen fo-tokopia; eta gaingidutako azken euskara-mailaren egiaztagiria.

Ordainketari dagokionez, ikasleak 210,35 euro ordiandu beharko dute hilabeteko egonaldiagatik, eta 420,71 euro bi hi-labeteko egonaldiagatik. Izena emateko epea maiatzaren 20an amaitzen da. Telefono zenbakia: 943022621. / www.habe.org.



Txindoki-Alkartasuna institutuko antzerki taldea

Maiatzaren 3an aurkeztu zuen Txindoki-Alkartasuna institu-tuko antzerki taldeak, Buero Vallejoren 'La doble historia del Doctor Valmy' antzezlan. Jose Mari Garai, Mikel Arruaba-rrena, Daniel Cobos, Estitxu Matias, Joseja Huertas, Olga Vazquez, Marta Arnaez, Jorge Sanz, Sergio Nuñez, Alberto Diez, Cristian Rodriguez, Alazne Gonzalez eta Usua Lasa di-ra aktoreak. Zuzendaria, Francisco Garcia Calero.

Olagi
Sagardotegia



Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

© 943 88 77 26 ALTZAGA

JOXI iturgintza
Jose Inazio Etxeberria Arriabarrena

GASA - BEROGAILUAK

☎ 943 884 387 Ibaiguren baserria
☎ 676 178 488 ZALDIBIA

LAZKAO
GARAJEA



RENAULT

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
AGENTZIA
LAZKAO

Zinegotziak epaibideetan

2000ko martxoaren 12ko hauteskunde espainiarrak dakartzagu gogora. Hauteskunde horietan Batasunak abstentziorako deia zabaldu zuen lau haizetara, eta guk Zaldibian, gure esku zegoena egin genuen gauzatu ahal izateko. Gogoratu behar da herriak oso ondo erantzun zuela orduan ere, abstentzioa %78koa izan baitzen. Udaletik ere urrats batzuk eman genituen. Udalbatzaren osoko bilkura batean, aho batez onartu genuen zenbait herritarrek egingako eskabideak onartzea. Hau da, hauteskunde mahaia-tako presidente, bokal eta ordezkioak izendatzeko zozketa publikotik kanpo uzteko eskaria onartu eta euren nahia errespetatu genuen. Beste erabaki bat ere hartu genuen: zozketan ateratako herritarrei normalean Udalak berak adierazten die hauteskunde egunean mahaian egotea tokatu zaiela, baina hauteskunde horietan ez genuen gure gain hartu ardura hori, eta Tolosako Junta Elektoraren esku utzi genuen guztia. Dena dela, azpimarratu behar da, hauteskundeetan parte hartu nahi zuten herritarrei guk ez genielako inongo oztoporik jarri. Guk gure aldarrikapenak aurrera eramatea

besterik ez genuen egin.

Kontua da, lehen aipaturiko osoko bilkuran hartutako erabakia dela eta, Tolosako 3. instrukzio epaitegitik deklaratzera joateko agindua jaso genuela alkateak eta 8 zinegotziek. Deklarazio horretan, osoko bilkuran harturiko erabakia berrestea besterik ez genuen egin. Baina ez zen hor amaitu, 2001eko ekainean Tolosatik fiskalaren idatzia jaso baikeuden ondorengo eskatuz: 11 asteburu bakoitza bere etxean atxilotuta (arresto domiciliario), 6 hilabetez, egunean 2000 pezetako isuna, 480.000 pezetako fidantza

Fiskalaren eskakizuna, orain, Donostiako epaitegiaren eskuetan dago, baina bitartean, aurrez zinegotzoi horren berri zuzenean eman gabe, 480.000 pezeta kendu dizkigute bakoitzari bere kontutik. Pentsa dezakezue horrek zer ondorio ekar diezazkiguten. Orain, epaiketara atera bitartean, dirua berreskuratu ahal izateko, bakoitzak gure izenean abala ezarri behar izan dugu.

Hori guztia, jakina, Espainiako hauteskundeetan harturiko erabaki politikoagatik. Guk beti esan dugu Espainiarekin ez dugula ezer jakin nahi; Euskal Herriak bere

hauteskunde propioak behar ditu, gure ekonomia, kultura, hizkuntza eta abar erabakitze-ko ahalmena izan behar dugun bezalaxe. Baina ikusten da gure nahiak nola erantzuten dieten isunekin, epaiekin eta abar. Halere, jakin dezatela guk geureari eutsiko diogula eta berriro ere Espainiari ezetza ematen jarraituko dugula.

Hemendik aurrerako urratsen berri ere emango dizuegu.

*Oroitz Etxabe Nazabal
Zaldibiako Batasuneko udal taldea*

Beasaingo Ikastolako junta eta langileen oharra

GOIERRITARRAK aurreko alean ateratu zuen oharra dela eta, argitu nahi dugu:

1.- Txosten hori sinatzen zutenak, alegia, Montse Auzmendi eta Belen Garmendia (Ordiziako Jakintza Ikastolan lanean ari direnak), Arantxa Bengoa eta Miren Egunez (Lazkaoko San Benito ikastolan lanean ari direnak), Itziar Juarez eta Arantxa Aranburu ez direla Beasaingo Ikastola-

ko langileak. Aplikatu diren kaleratze disziplinarioak, lanera etortzeari utzi dioten langileekin aplikatu direla.

2.- Beasaingo Ikastolan lan egin nahi duten langile guztiak, Beasaingo Ikastolan ari direla, beti bezala ilusio handiz, zailtasunak gainditzeko indarra jarritz. Aldiz, GOIERRITARRAN txostena aurkeztu dutenak izan direla Beasaingo Ikastola ixteko eta bertan ari garen langile guztiak kaleratzearen aldeko dokumentuak sinatu dituztenak.

3.- Beraz, irailaz gero aipatzen duten hondamendia beraien parte-hartzearekin etorri zela, beraien seme-alabak ikastolatik atera eta besteenak ateratzeko egin zuten kanpainagatik.

4.- Beasaingo Ikastolako junta eta langileak bildurik, aho batez, erabaki dugula, komunikatu horren aurrean behar diren neurri legalak jorratzea eta garbi uztea Ikastolaren alde lan egiteko prest egon garenak Beasaingo Ikastolan jarraitzen dugula.

*Juan Jose Lasa, Andramendi,
Irakaskuntza Koop. E. Lehendakariak
Beasaingo Ikastolako guraso eta bazkide laguntzaileen izenean
eta Ana Olano, Beasaingo Ikastolako
langileen ordezkaria, langile guztien izenean*

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
☎ 943 02 79 58 Faxa: 943 02 79 59
San Inazio, 5 BEASAIN

YARZABAL, S.L.
Zurgindegi mekanikoa
AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE
Isuses industrialdea - ARAMA
Tfnoa. eta Faxa: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

GESTORIA Biok
Errenta
aitorpenak
egiten dira

Goierrri, 12
behea
ORDIZIA

☎ 943 88 44 00
943 88 12 58

Jai zoriontsuak opa dizkizuegu beasaindar giztiot!
Garbitasunak
OXEPI
☎ 607 140 721 **ZALDIBIA**

Gure ingurumenarekiko jasangarritasuna

Jasangarri hitza maiz erabiltzen badugu ere gure eguneroko bizitzan, ingurugiroari buruz ari garenean, geroz eta nabarmenago agertzen zaizkigun gabeziak bixtan ditugulako da.

Gure ongizatean "behar" ugari sortarazi ditugu eta norbaitzuk ondo saltzen dute hori. Erosi hau, bestea, gastatu, gastatu txanponak, nondik eta nola etorri behar diren pentsatu gabe.

Zenbat zaborra pilatzen zaigun etxeetan eta zoritarrez ez dira denak Sasietako zabor biltegira iristen, oraindik bada nor errekarako bidea ahaztu gabe duena eta "suaizante" ontzia lasai botatzen duena. Lotsa sentitu beharko genuke bide baztarretan botatako etxeko tresna ugari ditugunean oraindik. "Ez da garbiagoa asko garbitzen duena, gutxi zikintzen duena baizik".

Zenbat etxe dago hutsik Goierrin? Zenbat etxe berri ari da eraikitzen? Zenbat autotzale gabiltza errepideetan elkar bultzaka? Zenbat merkatal gune? Karroa hartu eta hura gainezka bete arte. Ze gozada! Zenbat gauza eskura ahal dezakegu diruarekin nahiz eta gero kalera ateratzeko bildurrez egon hil amaiera iristearren.

Baina hau da bizi kalitatea edo ongizatea askorentzat. Jarrera honek asetzen du jende asko eta ez, diogun moduan, ingurune oreka baten premiak.

Bitartean baserritarrek nekatu egin dira lan alperrean, esnea eta okelaren prezioak lurpean daudenez eta pinuz estali dira soro



eta belardiak, eta hau da hemen ere nagusi Gipuzkoa osoan bezala. Desagertu dira lehengo gaztinadi eta hariztiak.

Mendi aldera begiratzen baldin badugu, berriz, egoera ez da hobe. Adibidez, 1821 urtean Aralarko Hego magalean adibidez, 1.113 Ha zituen pagadiak. Gaur erdira ere ez da iristen. Jakina da Aralarren bere formazio karstikoa dela eta lur azala ahula duela eta basoaren babesa desagertzen denean nabarmena da bertan hasten den higadura edo erosioa.

Arazoi asko egon dira erabilpen guztiak justifikatzeko, denak bere garaian arrazoi-tuak nolabait. Beti daude bideak gure ase nahiak arrazoitzeke. Beti, lehen, eta gaur ere bai eta izango dira bihar ere. Non dago erabilpen hauentzako muga? Duen bizitza eta indarra galduarazi arte? Ingurugiroaren katean denok gaudelako bat eginda. Beheran lurrari zukua erre arte ateratzen diogu eta mendietan ere horrela nahi izaten dugu. Inguru hauek gure bizitzan eskaintzen diguten aberastasunez jabetzen ez garen bitartean nekez ohartuko gara egiten ari garen zauriaz, askotan sendatu ezin daitekeen zauria.

Lurra. basoak diruarekin neurtzen ditugu eta ez bere-berezko aberastasunarekin. Egin dezagun jasangarriagoa gure bizitza inguruarekiko eta bide batez, gurekiko ere.

Joxe Ramon Agirre

**"Ez da garbiagoa asko
garbitzen duena, gutxi
zikintzen duena baizik"**

Landar Lan taldeak egindako orrialdea

Taldean parte hartu edo gairen bat aportatu nahi baduzu: ☎ 943 16 12 44

LIBURUA

"Conservación de la biodiversidad y gestión forestal" (Su aplicación a la fauna vertebrada), Bartzelonako Unibersitateak argitaratua 2001ean, Solsonako Centre tecnologic Forestal de Catalunya eta Territori i Paisatge fundazioaren laguntzarekin.

JAKIN BEHARREKOA

Energiaren Naziarteko Agentziak esan duenez, "standby" egoeran dauden aparailuek (bideoa, telebista, ordu programatzaileak, sukaldeak,...) Kooperazio eta Garapen Ekonomikoko Erakundeko herrialdeetako elektrizitate guztiaren %2 kontsumitzen dute. Aparailu horien kontsumoa herrialde garatuetako etxebizitzetako energia kontsumoaren %13 da.

Pinuek dituzten adar pisuak behetik hasita zenbaitzen badituzu, pinu horren adina zein den jakingo duzu.

GARIAIN GARAIKOA

Udaberriko hegaztien migrazioan, maiatza dugu azkeneko garaia, nahiz batzku ekainera arte luzatuko duten beren pasea. Batzuk aipatzearen, maiatzeko zeruetan ondorengo hauek ikus genitzake: Zape-latx liztorjalea, Usapala, Sorbeltz arrunta, Baso txinboa, Euli txori beltza, eta Urretxoria. Amaitzean edo amaitu berri dutenak Lepitzulia, Enara azpizuria, Urretxindorra eta Lezkari arrunta dira.

ESALDIA

Aberatsa, ez da gehien duena gutxien behar duena baizik.

Beasain jaietan

Maiatzak 10, ostirala:

16:30etan: Aldibereko Xake-txapelketa amateurrentzat, Gernika pasealekuan.

18:30etan: Erretiratuen Etxeko Tailerrean egindako Eskulan-Erakusketaren inaugurazioa, Erretiratuen Etxean.

20:30etan: Loinatz eta Loinatz Txiki Abesbatzen eta Musika Eskolako Abesbatza-ren kontzertua, Andra Mari Zeruratuaren Parrokian.

22:30etan: Mariren jaitsiera, Loinazko San Martin plaza.

23:00etan: Goierriko Erraldoi- eta Kilikiak, Koskola txarangak eta Goloka taldearen "Sorginak" ikuskizuna.

Maiatzak 11, larunbata:

09:00etan: Txistularien Udal-bandaren goizeresia.

10:00etan: Meza, Loinazko Andre Mariaren Ermitan.

10:30etan: Graffiti-erakustaldia, Zubiondon.

12:00etan: Umeen danborrada. Irteera: Igartzatik.

15:30etan: Arkuzko Tiraketa. Loinatz Jaiak Saria (Estatuko Liga), futbol-zelaian.

16:00etan: III. Loinatz Eskuzko pilota-txapelketa, Ba-

tzokiko frontoian.

17:00etan: Haurrentzako tailerrak eta ludoteka "Detraka"-rekin, Joan Iturralde plazan.

18:30etan: Danborradako konpainien irteera.

19:00etan: "Koskola" txarangaren irteera.

19:00etan: "Beasaingo Hiri" izeneko Argazki-lehiaketako erakusketa eta sari-emaitea, Usurbe Antzokiko Erakusketa-Aretoa.

19:30etan: Briganthya folk-taldea, Loinazko San Martin plaza.

22:00etan: DJ's Jaialdia, Zal-dizurreta kalean.

22:30etan: Danborrada.

00:00etan: Danborradaren azken joaldia Koskola txarangarekin eta Musika Eskolako Musika-bandarekin, Loinazko San Martin plazan.

00:30etan: Nafar jotak, "Raices Norteñas", Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 12, igandea:

10:00etan: Kalejira Txistularien Udal-bandarekin.

10:00etan: XXXII. Loinazko San Martin Nazioarteko Xake-jokaldiak, Murumendi ikastetxean.

10:00etan: Arkuzko Tiraketa. Loinatz Jaiak Saria (Estatuko Liga), futbol-zelaian

11:00etan: Landare eta sendabelarren erakusketa, Zubimuzu plazan.

11:30etan: Beasaingo II. Dantza Topaketak: dantzarien ibilaldia auzoetatik.

12:00etan: "Barea" marrazki-lehiaketa, Joan Iturralde plazan.

12:30etan: Dantza taldeen bilkura eta ibilaldi nagusia.

13:00etan: Udalbatza-ren soka-dantza, Loinazko San Martin plazan.

17:30etan: "Kiki eta Moko" pailazoen "Amalurra bihotzean" ikuskizuna, Joan Iturralde plazan.

18:30etan: Beasaingo II. Dantza Topaketak: euskal dantza-taldeen saioa, Loinazko San Martin plazan.

18:30etan: Trapu zaharra antzerki taldearen "Laugarren Tenorea", Bideluze plazan.

19:30etan: Koldo trikitixa-eskolako ikasleen saioa.

23:00etan: Su artifizialak, Uharkaldea, Igartzako jauregiaren atzeko aldean.

23:30etan: "Ilunabar" taldea, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 13, astelehena:

08:00etan: Udaleko Txistulari-bandaren goizeresia.

09:00etan: Prozesioa Loinazko San Martinen Baselizara. Jarraian: Meza, Loinazko San Martinen Baselizan.

10:30etan: Erromeria, usadiozko taloak, erroskilak, odolkia eta barraskiloak dastatuz, Loinazko San Martinen Baseliza inguruan.

10:30etan: Lagunarteko futbol-txapelketa, La Salle-San Jose ikastetxean.

11:30etan eta 16:00etan: Umeentzako parkea, Urbialde plazan.

13:00etan: Laguntaldeen irteera "Oria" eta "Lagunak" txarangek alaituta.

19:00etan: "Egan", Loinazko San Martin plazan.

19:30etan: San Inazioako laguntaldea "Oria" txarangarekin igoko da Erretiratuen Etxera.

23:00etan: "Egan", Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 14, asteartea:

10:00etan: Kalejira Txistularien Udal-bandarekin.

10:00etan: Azoka Berezia-

PEAGE

ZURE BAKERO DENDA

Levi's

Bonaventure

Replay

Guess

Liberto

Nagusia, 42 BEASAIN

Korreio, 25 TOLOSA

Emeterio Arrese, 25 TOLOSA

Garibai, 6 DONOSTIA

URBIL merkatal zentrua



Gurutze-puntua, puntu
erdia eta artiletan
berezitasuna
Gai hauen ikastaroak
ere ematen dira

Bordatuak eta arropa
konponketak

Oriamendi, 19 ☎ 943 16 23 84 BEASAIN

LARRAITZ

Lurrindegia Opari gaiak

Oriamendi Kalea ☎ 943 88 33 02
BEASAIN



☎ 943 086 131
Kale Nagusia, 7 BEASAIN

ren: Barazki-lehiaketa, Loinazko San Martin plazan; Azienda eta hegaztien erakusketa, Joan Iturralde plazan; Talo-dastaketa, Zubimuzu plazan; Artisau-azoka, Zubimuzu plazan.

11:00etan: Umeen Soka-dantza, Loinazko San Martin plazan.

12:00etan: Trikitilariak, Loinazko San Martin plazan.

12:45ean: Herrikirolak, bertsolariek girotuta: Iñaki Azurmendiren erakustaldia eta A. Egaña, S. Lizaso, A. Sarriegi eta I. Zubeldia bertsolariak, Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Helduen Soka-dantza, Loinazko San Martin plazan.

19:30ean: Bertsolariak eta trikitilariak, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 17, ostirala:

19:00etan: Igartzako informatika-gunearen inaugurazioa, Igartzako jauregian.

19:00etan: Erraldoi eta kiliak, Txistulariekin eta Musi-



ka Eskolako Bandarekin, Loinazko San Martin plazan.

22:30ean: Rock kontzertua, Gipuzkoa plazan (Txosnak)

22:30ean: "Última hora" orkestra, Loinazko San Martin plazan.

00:15ean: Francisco Ribelles eta bere mariatxiaren ikusizuna, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 18, larunbata:

10:00etan: Txistularien Udal-bandaren goiz-eresia.

10:00etan: Elkarteen arteko Sukaldaritza-lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

11:00etan: Erretiratuentzako Toka- eta Igel-txapelketa,

Zaldizurreta kaleko terrazan.

13:00etan: Elkarteen arteko Sukaldaritza-lehiaketa presatutako plateren aurkezpena, Loinazko San Martin plazan.

16:00etan: Aitz-Zorrotz Elkarreak antolatutako probintzia-mailako plater-tiraketa, Zelaizabalena.

16:00etan: Gaztetxoentzako Xake-lehiaketa, Murumendi Ikastetxean.

17:30ean: Umeentzako Mozorro-tailerra, Barrendainen.

18:30ean: Mozorro-tuen bilkura eta ibilaldia "TTR Teatroak" eta "Oria" txarangak alaituta.

19:00etan: Umeentzako dantzaldi girotua "TTR Teatroa-

ren" "Gaur jaia" ikuskizunarekin, Joan Iturralde plazan.

19:00ean: Saloiko dantzen, sevillar dantzen eta balet-dantzen erakustaldia, Loinazko San Martin plazan.

23:00etan: "Oropendola" orkestra, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 19, igandea:

09:00etan: Iturengo Aurtizko Zantzarren esna-deia.

11:30ean: Zumaiako Musika-bandaren kalejira.

13:00etan: Zumaiako Musika-bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

17:30ean: Dantzaoketa eta play-back-a, Joan Iturralde plazan.

18:30ean: Kalejira "Mc Jeara's Band-arekin".

19:00etan: VI. Dantza Libreko lehiaketa, Loinazko San Martin plazan.

19:00etan: Herri-kirolen erakustaldia, Gernika Pasealekuan.



SIBONEY
una Cristina Olano

- ✕ **Zutikako solariuma**
- ✕ **Estetika guztia**
- ✕ **Lurrindegia**
- ✕ **Pitxiak**
- ✕ **Antizelulitiko tratamendua azkeneko teknikekin (endomasaje ultrasonikoa)**

tel. 943 88 15 50
Joan Iturralde, 3 BEASAIN
mail: ac.olano@euskalnet.net
<http://members.es.tripod.de/siboney/>

Basakana



Gloaldia eta Pintxo Gokoa

Iturriotz, 11 beasain

NAGASAKI

Taberna

Sartu zure giroan!

☎ 943 88 15 67

J. M. Iturrioz BEASAIN



Julki
gorotegia - pasteleria

Martintxoak, gai naturalak bakarrik erabiliz egiten dugu egunero, bere osotasunean dasta ditzaun lur honetako saporarik esanguratsuenak..



beasaingo
MARTINTXOAK
Gozoz gozatu - Beasaingo zaporea

tel 943 88 82 37 Kale Nagusia, 11
C.P.20.200 Beasain - Gipuzkoa

Xabier Mendiguren Elizegiren azken liburua


'Errautsen distira':

36ko gerraren oroitzapenak eta bizipenak

Xabier Mendiguren Elizegi Beasaingo idazlearen lehen "historia" lana da. 1936ko gerra zibilaz, etxean, inguruan... entzundako pasadizoak dira bildutakoak. Gaur egungo tramaren barruan istorio zaharrak kontatzen dira.

"Bestela irudi badezake ere, gutxi idatzi dugu euskaldunok 36ko gerrari buruz, oraintsu arte bederen. Hitz egin ere, esango nuke etxe frankotan ez dugula askorik egin, ez behintzat izan duen eraginaren neurrian", dio Xabier Mendigurenek.

'Errautsen distira' liburu-ko lau ipuinek ahozko kontakizunak dauzkate oinarrian, eta hauen atzean, berriz, pasadizoak daude; gerrari buruzkoak gehienbat, eta gerra-ostean kokatua bakarren bat. "Oinarri egiazko hori itxu-



raldatu egin dut hala ere, batzuetan gehiago beste batzuetan baino, eta, denetan ere, aspaldiko kontuak bere hartan eman orde, gaur egungo istorio baten barruan sartu ditut, kontakizun historiko hutsa egiteko gogo faltaz, edo aspaldiko su hark argi egiten ditugulako oraindik", argitu du Xabier Mendigurenek.

Ipuin luzearen eta nobela laburraren artean dauden lau kontakizun dira: 'Aintxinako fotografia', 'Aita Morlans

itzuli da', 'Zapero, gogoan zaitugu' eta 'Biziak ez zuen txoria balio'. Istorio gehienak Goierri kokatzen dira. 'Antxiñako fotografia' narrazioan dagoen aztarna historikoa Jerardo Elortzari zor dio beasaindarrek; 'Aita Morlans itzuli da' Joxe Mari Auzmendiri; 'Zapero, gogoan zaitugu' Antxiñe Mendizabali, eta 'Biziak ez zuen txoria bidali' Joxe Azurmendiri.

Fikzioa eta errealitatea uztartzen ditu. Oso zaila da be-

reiztea zer den fikzioa eta zer den errealitatea.

'Aintziñako fotografia'

Neska kazetari batek ligatzeko asmotan joko du ondoko herrira, baina gerrako pasadizo bat kontatuko dion alarguna topatuko du bertan.

(...) Zumarraga aldeko milizianoek trenbidea moztu behar zela erabaki zuten, tertzioen eraso apur bat behintzat moteltzeko eta haien garraio azkarrak eragozteko. Mozteko toki egokiena ere aukeratu zuten: Ormaiztegi-ko zubia, herriaren ohorera-ko Gustave Eiffel ingeniariak egina uste zutena, hala izan ez bazen ere. Eiffelena izan edo ez, hura eraitsi beharra zegoen, jo eta suntsitu. Asturiasko meatzari batzuk ekarri zituzten, leherkarietan espezialistak, eta haiei laguntzeko Bergarako Labe Garaietako talde bat, beren tresna eta guzti; batzuen eta besteen artean, zubia erdi bi eginda utzi

MARGOGAT, s.l.

✓ Pinturak
 ○ Dekorazioa
 ○ Industrialak

✓ Tresnak
 ✓ Makineria

Tfnoa./faxa: 943 88 65 63
 Oriamendi, 32 BEASAIN

LOINATZ
 Taberna
 Jatetxea

Bazkari, afari,
 ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07
 Nagusia, 27 BEASAIN

J. ARANBURU
 Gizon, emakume eta haurrentzako
OINETAKOAK

Festa onak pasatu!

Kale Nagusia, 36
 ☎ 943 88 01 27 BEASAIN

Boni-etxe
 igeltseritza orokorra


☎ 616 921 502 Oriako pasealekua, 12 BEASAIN

zuten, erdiko zatia lurrera eraitsita(...)

'Aita Morlans itzuli da'

Komentu ilun batean, fraide espainolisten eta abertzaleen artean aspaldi gertaturiko misterio eta heriotzak argitu nahian hasiko da ahaide urrun bat.

(...) Une hartan, nik eza-gutu ez nuen osabaren irudia etorri zitzaidan burura. Ihesi zebiltzan abertzaleak galtzeko asmotan kuartelillora joateko prest zegoen fraide erre-txina, eta salatzailea ezkutan pozoitu edo hiltzen utzi omen zuen lekaide kaskailua, azken finaren errainu hurbilak berdindurik sumatzen nituen bi-biak nolabait. Misterioaren giltza eskura nuela sentitu nuen momentu batean, eta orduantxe, barrengo harrak hozka eginda bezala, gorputz erdia altxatu zuen Aita Morlansek, eskua niregana



luzatu eta eldarnio antzean honela zioela: - Ez zian hola hiltzea merezi, ez zian merezi... (...).

'Zapero, gogoan zaitugu'

Lagun baten aitona gudariarekiko mirespenak eta neska baten maitasunak Nikaragua-ko iraultzara eramane zuten gazte bat, baina handik itzultzean ohartuko da nola alda-

tzen diren gauzak.

(...) Eta esan nion bazekielanola izan nintzen beti historiaren zalea, nolako jakinmina piztu izan zidan beti 36ko gerrak, nolako mirespena nire orduko gudari zaharrei; eta zein tamalgarria zen haien gainean gizarte osoan zabalduriko ahaztura.

- Pena duk, bai --esan zuen Jontxuk, gazela-emeari keinuz kontua eskatzearekin batera.

Eta segitu nuen kontatzen interesgarria litzatekeela gara haren gaineke ikerketak egin eta ezagutaraztea, eta nik neuk ere banuela horretan jarduteko gogoia.

- Atzoko gudarien eredia gogora ekartzeko, gaurko gazteen erakusgarri.

- Baina ez orain armak hartzeko; gaur egun beste era batera egin behar da borroka--esan zuen Jontxuk.(...)

'Biziak ez zuen txoria balio'

36ko gerratik ETArene su-etena bitartean, Francoren kontrako erresistentziatik eta trantsizio istilutsutik pasata, bere bizitzako nahi eta ezinak gogoratuko ditu Banco de Vasconiako enplegatu txepe-lak, Iruñetik jaioterriako bi-daian.

(...)Nafarroan nagusitu eta gero Gipuzkoarantza abiatu ziren berehala Molaren mutilak, eta, Gipuzkoaren atari, Zegaman sartu ziren haren osteak beste inon baino lehen, bai Etxegarateko errepidetik, bai Otsaurteko trenbide paretik etorri. Herrian ez zuten aurre egingo zienik topatu, Beasaindik eta Zumarragatik iritsitako sindikalista batzuen tiro apurak besterik ez, baina nahikoa izan zen hori erreketek suminduak mendeku gogoz jartzeko.(...)

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 42095

JM Arana, 1 - 2. esk. esk.

Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

BEASAIN

XABIER SALINAS ELEKTROMEKANIKA

Erraminta elektrikoaren konponketa
Elektrikoa, pneumatikoa eta frekuentzi altukoa

☎ 943 88 21 49

Katea, 5



ALKIMAK erramienten alokairua

BEASAIN



- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN

AHOLKULARITZA GOENAGA ARANBURU

AHOLKULARITZA OROKORRA:

laborala,
soziala
fiskala
merkantila
kontablea.

GESTORIA:

ibilgailuak
garraioak
berrikuntzak
eskriturak.

Jai zoriontsuak
denoi !

☎ 943 16 00 65 Faxe: 943 16 03 59
J. M. Iturrioz, 6 BEASAIN

Briganthya folk musika taldeak 'Ashera' maketa kaleratu du

Beasaingo taldeak bi urte egingo ditu ekainean

Duela bi urte sortu zen Briganthya folk musika taldea. 8 lagunek osatzen dute taldea, bi txalapartariren laguntzarekin. Txalapartarekin eta euskararekin, euskal kultura eta zeltiarra uztartu nahi dituzte. Beasaingo jaietan, maiatzaren 11n, arratsaldeko 7,30etan, Loinazko San Martin plazan izango dira entzungai eta ikusgai.

Duela bi urte, Beasaingo Musika Eskolan sortutako proiektua da Briganthya. Dena den, urtebete lehenago egin zuen lehenengo aurkezpena, Ordiziako akordeoi jaialdian. Jendeak gustura hartu zuenez, proiektuari serio heltzea erabaki zuten.



Talde gaztea da. Batz bestea, 21 urte. Gehien-gehienak Beasaingo Musika Eskolako ikasleak dira. Kanpotarrak badituzte, ordea: gaita jolea Donostiakoa da; biolin jolea Oreretakoa eta txalapartariak Hernanikoak. Izen-abizenek, jarraian dituzue taldekideak: Eneko De la Fuente (akordeoia, badharam eta djenbea), Urko Sanz (biolina), Laura Latienda (gitarra eta ahotsa), Joxerra Isasti (bateria eta perkusioa), David Fernandez (akordeoia), Da-

niel Conde (gaita, whistles eta flautak), Daniel Lerma (baxua) eta Ane Lasa (teklatua eta perkusioa). Txalapartariak Zurartean taldeko Sergio eta Odei dira. Aurretik beste jende bat ere ibili zen baina utzi egin zuten.

Dabid Fernandezek adierazi digunez, entsaioak ostiralek igandera egin behar izaten dituzte, batzuk lanean eta besteak kanpoan ikasten ari direnez, elkartzea zaila gertatzen zaielako. Musika

Eskolak utzitako gela batean entsaiatzen dute.


Folk musika

Folk musika jotzen du Briganthyak, zentzurik zabalean. Zeltiarra, Euskal Herrikoa... nahasketak egiten dituzte. "Txalaparta sartu nahi dugu kanpotarrek gure kultura ezagutu dezaten. Esplotatu gabeko musika da eta horregatik hasi ginen", dio Fernandezek.

Musikaren doinuak eta hitzak beraiek egindakoak dira, elkarlanean. Bertsioen bat edo beste badute, Celtas Cortos taldearen kanturen bat edo banda sonoraren bat.

Kanturako erabiltzen duten hizkuntza, euskara eta ingelesa dira. "Nahiago genuke dena euskaraz kantatuko bagenu, folk musika ez baita euskaraz askorik entzuten. Bi elementu ditugu esplotatzeko: musika eta hizkuntza", gaineratu du Fernandezek.

IBAI ONDO



AROSZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldetako altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



Zaldizurreta K.

BEASAIN

IRUDI - Foto, S.L.

Javier Fernández Sánchez

San Inazio kalea, z/g

BEASAIN

Tel./Faxa: 943 888 100



Argazki zaharren retoke digitala

Festa onak pasa!



Jai zoriontsuak denoi!

MARIAN LARREA

BARNE DEKORAZIOA

ERREFORMAK

PROIEKTUAK

ESZENOGRAFIA

☎ 943 88 58 48 - 943 46 34 79

Oriamendi, 30 BEASAIN

Lehenengo lana kalean

'Ashera'. Horixe da Brihanthya taldearen lehen maketaren izenburua. Sei kantu biltzen dira bertan. Lehenengo bost kantuak Brihanthya taldearenak dira eta azkeneko kantua, Zurartean txalapartariena. TX diskak estudioan grabatua dago.

Hilabeteen 500 kopia saldu dituzte eta 700enera iritsi nahi dute. 6 eurotan salgai dago CDa, Beasaingo tabernetan.

Aurrera begira bide hone-tatik jarraitu nahi dute, ahalik eta goren iristea dute helburu edo amets, nahiz eta ondo jakin musikaren mundua oso zaila dela.

"Ari gara tokia egiten"

Azkeneko urtean garapen handia izan du Briganthya taldeak. Iaz, Euskal Herriko plazetaz gain, Galizian ere, folk jaialdietan parte hartu zuten. Aurten Goierriin kontzertu bat baino gehiago ari dira eskaintzen. Ekainean Ordizian izango dira.

Udan Espainia aldean kontzertuak emango dituzte: Sorian, Avilesen, Segovian, Burgosen, Galizian... "Ari

gara tokia egiten", dio Dabid Fernandezek, Briganthya taldearen partaideak. "Kontzertu gehienak udan dira, oporrak sakrifikatu behar", gaineratu du. Baina gustuko lekuan aldaparik ez.

Briganthya taldearen musika, egokien aire zabalean entzuten da Fernandezek esanetan. Zer nolako kontzertuak eskaintzen dituzten galdetuta, zera erantzun digu beasaindarrak: "era guztietako musika jotzen dugu, batzuk lasaiak eta besteak dantza egiteko modukoak. Espainian jendeak dantza gehiago egi-

ten du. Hemen gehiago kostatzen zaigu".

Brigantyak prest daude han eta hemen beraien musika erakusteko. Harremanetarako telefono zenbakia eman digute: 943888002. Web orria ere badute: www.briganthya.com

Briganthya

Hain izen berezia duen taldeari ezin esanahia galdetu gabe gelditu: "Briganthya hitz zeltiarra da, pixka bat moldatuta. Azkeneko H eta Y sartu ditugu, jatorrizko I-ren ordeez.

Diskoaren izena, 'Ashera' ere moldatutako hitza da, Hasiera esan nahi du. Estetikagatik aldatu ditugu", zehaztu du Dabid Fernandezek.

Eskerrak

Lerro hauek aprobetxatuz, Dabid Fernandezek eta Briganthya taldeak eskerrak eman nahi izan dizkie hauei guztiei: Beasaingo Udalari, Beasaingo Musika Eskolari, Kolpez Kolpe txalaparta taldeari (Zador, Rezola eta Gorosti), TX estudioko Amaia eta Xakiliri, Amaia, Miren, Saioari...



Daniel Conde



Eneko De La Fuente



David Fernandez



Joxerra Isasti



Ane Lasa



Laura Latienda



Daniel Lerma



Urko Sanz

BARANDIARAN Taberna

- Eguneroko bazkariak
- Afariak
- Baserriko oilaskoak

J.M. Iturrioz, 7
☎ 943 88 92 10
BEASAIN

o s k a r b i
o i n e t a k o a k

Tel. 943 88 41 04 Tel. 943 88 19 44
kale Nagusia 34 BEASAIN · kale Nagusia 25 ORDIZIA



Jai zoriontsuak denoi!

Nagusi
Optika

Osakidetzarekin
hitzarmenari
atxikiak

☎ 943 161 999

Nagusia, 10

BEASAIN

Azintzio jaien egitaraua

Maiatzak 8, asteazkena:

19:15ean: Jaiei hasiera emango dien suziria jaurti eta Gizon Pikua Udaletxeko bal-koiean jarriko da Jaiak amai-tu bitarte bertan egon dadin.

19:30ean: Buruhandiak eta kalejira dultzainariekin.

21:00etan: Lagunarteko Afa-ria Bilkoin K.K.E.-n.

Ondoren eta goizalderarte, dantza saioa "Iraunkorrek" Txarangarekin.



Maiatzak 9, osteguna: Azintzio eguna:

10:00etan: Diana Dultzaina-riekin.

11:00etan: Meza Nagusia

12:00etan: Legorretako Mu-sika Eskolako Haurren Kont-zertua Herri Zineman.

13:00etan: Buruhandiak tri-kitilariak lagunduak.

18:00etan: Agintarien Soka Dantza.

Ondoren: Herriko Dantza-rien saioa.

Ondoren: Kalejira Trikitila-rien eskutik.

18:30ean: Pilota Partiduak. Gazte Mailakoak: Iriarte/Agi-rre - Amondarain/Garmendia. Afizionatuak: Eizagirre/Al-

berdi.- Huizi/Astigarraga

19:30ean: Trikitilariak. Une berean, sagardo dastaketa eta txorizo jatea sagardo erara Udal Pilotalekuan.

23:00etan: Mikel Telleria abeslariaren Kontzertua eta Diska Berriaren aurkezpena Harripila Kiroldegian.

Maiatzak 10, ostirala:

10:00etan: Diana Dultzaina-riekin.

11:00etatik 13:00etara: Haur Jolasak plazan. Monito-reak izango dira eta herriko nahiz kanpoko haur guztiek parte har dezakete.

12:30ean: Pote, Igel, eta To-ka Txapelketa Herriko Jubila-tuen artean.

15:00etatik 17:00etara: Haur Jolasak plazan.

19:00etan: Haurrentzako Play Back Saioa.

23:00etan: Helduentzako Play Back-a.

Jarraiean: Fydo Dydo, DJ Bore eta Dani DJren emanal-dia.

Maiatzak 11, larunbata:

10:00etan: Diana Dultzaina-riekin.

13:00etatik gauerdia: Mo-zorro Eguna, 'zirkoa' Gaia-ren inguruan.

13:00etan: Txakolin dasta-keta Iraunkorrek Txarangak alaitua.

13:00etan: Herriko XX. Pa-ella Txapelketa. 14:00etan,

amaitzen da prestatzeko epea.

14:30ean: Lagunarteko Herri Bazkaria plazan Txarangak alaitua.

18:00etan: Malabarrak, ma-goak, hankaluzeak, e.a. pla-zan.

23:30atik 3:30era: Dantzal-dia Trakets taldearen eskutik.

1:30ean: Mozorro Lehiake-taren sari banaketa.

Maiatzak 12, igandea:

10:00etan: Diana dultzaina-riekin.

12:00etan: Buruhandiak tri-kitilariak lagunduak.

Ondoren 14:30era bitarte: Kalejira trikitilarien eskutik.

18:00etan: Kalejira Iraunko-rrak txarangarekin.

18:30ean: Herri Kirolak Era-kustaldia Harripila Kirolde-gian: Elosukorta harrijaso-tzailearen erakustaldia. Goe-natxoren minutuko marka ahalegina 175 Kgtako harri kubikoarekin. Arria V eta Mindegia aizkolarien arteko apustuaren errebantxa: 60 on-tzako 10 enbor.

20:30ean: Gizon Pikuaren ehorzketa.

OLASO Taberna

Giro jatorra

Guadalupe Auzoa

LEGORRETA ☎ 943 80 63 55

**PIKONDO
TABERNA-k**

festa zoriontsuak opa dizkizue!

Guadalupe auzoa

☎ 943 80 62 71 LEGORRETA

**GUADALUPE
TABERNA**
Festak ondo igaro!

Guadalupe auzoa

☎ 943 80 65 54 LEGORRETA

a u l i a
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea

☎ 943 80 60 66 LEGORRETA

**IÑAXI
Tabernak**

jai zoriontsuak opa dizkizue!

☎ 943 80 61 20

Nagusia, 8 LEGORRETA

ARIZPE LANTEGIA
Pedro Mujika

Soldaketa elektriko eta autogenoan lanak

☎ 943 80 60 98

Eguzki Etxea LEGORRETA

Dantzarien jantzi berriak auzolanean egin dituzte ama-amonek

Dantza taldeko gurasoen ekimenez, herriko dantza taldeentzat jantzi berriak egin dituzte. Auzolanean egin dituzte jantziak. Emaitzarekin gustura daude legorretarrak.

"Iaz lehenengo egunean dantzari txiki eguna izan zen Legorretarentzat. Legorretako dantzariak pobrego zeudela ikusi genuen, beste dantzarien jantziekin konparatuta. Guk egitea pentsatu genuen. Hasieran sinple-sinple egitekotan hasi ginen. Gero dantzako irakasleak patroiak eskuratu zizkigun... Lan txukuna egin dugu", dio Ana Rosa Agirrek. Dena den, "helburua ez da jantzi onak eta dotoreak egitea, baizik eta gurasoak elkartzea, biltzea. Lortu den emaitza polita izan da baina politagoa da gure artean sortu den giroa. Batzuk josten ere ez genekien, baina jostuna izandakoarekin eta amonekin ikasi dugu. Elkarlanean egin dugu".



Goiko argazkian, "Jostun" taldea. Behean, dantzariak jantzi berriein, Zaldibiako Dantzari Txiki egunean.

Tradizioa zertxobait jarraitu dute jantziak egiterakoan. "Tradizioaren arabera, lehen, txikia gelditzen zitzaie-nean, gonak pusketekin luza-

tzen zitzaie eta tradizio hori jarraitu dugu. Baina ez agian tradizioagatik, polita gelditzen zelako baizik", dio Ana Rosa Agirrek. Oihalak,


hori bai, eta gaur egungo erabili dituzte, Frantziatik ekarriak. Oihalak Udalak ordaindu ditu.

Dantzari bakoitzarentzat jantzi ezberdinak egin dituzte. Guztira, 19. Mutilik ez dago dantza taldean, beraz, nesken arropak egin dituzte. Otsailaren erdialdetik hona, astearte eta ostegun arratsaldeetan bildu dira. Amak eta amonak. "Batzuk ez zekiten orratzik hartzen ere. Jostun izandakoek eta amonek erakutsi digute gazteagoei josten. Lantaldean egin dituzte. Oso giro polita sortu da. Asko ikasi dute. Eskulan tailer tankera ere hartu du, josten ikasteko. Gureagoa sentitzen dugu", adierazi digu Ana Rosa Agirrek. Haurrak ere, oso gustura daude jantzi berriein. Zaldibiako Dantzari Txiki egunean estreinatu zituzten.

Herriko jaietan ere ikusi ahal izango dira. Maiatzaren 9an, agintarien dantza-soka garaian, erromeria antolatu nahi dute dantzariek, sagardotegi giroan.

MUGAR

Argiztapenak



Euskal Pilota, 4 eta 5

☎ eta faxa: 943 88 86 88

☎ mugikorrak: 619 46 22 65

eta 619 46 22 68

ORDIZIA

GOIHERRI, S.A.
PAPERAREN MANIPULAKETA

'Jai zoriontsuak denoi'

San Migel, 7

Tfnoa.: 943 80 61 90

LEGORRETA

Pako Etxera Plataformaren ekimena

Apirilaren 21ean Pako Herri-
ra Plataformak antolatuta,
zenbait ekintza burutu ziren
herrian.

Herriko mendietan zehar,
mendi martxa egin zuten le-
henik, 25 lagunek.

Ondoren, hamaiketakoa
eta kontzentrazioa izan ziren
herriko plazan. 50 lagun bil-
du ziren bertan.

Pako Eskitxabel herrita-
rrak 21 urte daramazki kar-
tzelan. Zigorraren 3/4 orain
dela 6 urte bete zuen eta Pako

Herrira Plataformak, bere as-
katasuna eskatzen du, legeak
dioena eskatuz.

Goiko argazkian ikus dai-
teke plazan egindako kon-
tzentrazioa.

Arkaitz zorionak!

Arkaitz Saez lapurtarrak 25
urte bete zituen apirilaren
27an. 2 urte daramatza kar-
tzelan eta zenbait legorreta-
rrek zoriondu egin nahi izan
zuten. Beheko argazkian dau-
de guztiak.



Mus txapelketako irabazleak

Apirilaren 20an Herriko
Ostatuan jokatu zen mus
txapelketan Patxi Agirre
eta Anjel Mujikak osatuta-
ko bikotea suertatu zen ira-
bazle. Bigarren tokian
Asier Agirre eta Joxeba
Zabaleta, Aitz-Buru elkar-
tean lehenengo geratu zen
bikotea,

San Isidro eguna

Herriko baserritarrek urte-
ro omentzen dute beraien
patroia eta aurten ere ez di-
ra gutxiago izango eta
8:30ean parrokan meza
entzun ondoren, herriko
ostatuan elkartuko dira
mahaiaren inguruan afari
goxoa egiteko asmoarekin.

Iñaki Ugalde

Zine erotikoaren txanda

Hilero gai ezberdinak jo-
rratzen ditu Bide On zine
taldeak. Maiatzari dago-
kiona, zine erotikoa izango
da. Ohi bezala, ostiralero,
gaueko 10etan, Ertoetxen
izaten da zinea. Sarrera:
euro 1.

Maiatzak 10:

'Las edades de Lulu'. Zu-
zendaria: Bigas Luna.

Maiatzak 17:

'Cuentos calientes'. Zu-
zendaria: Miki Hirose eta
Jiroh Hirakata.

Maiatzak 24:

'El imperio de los senti-
dos'. Zuzendaria: Nagisa
Oshima.

Maiatzak 31:

'Emmanuele 2'. Zuzenda-
ria: Francis Giacobetti.



Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

Alpen, estilo desberdinetako
aukalde-aukera zabala daukagu,
baserri giroko akabera berotik hasi
eta egungo lerro fin eta diseinu
markatueta raino.



Alpen gainera, sukalderako eta
zure etxeko gainerako geletarako,
opari-gai eta osagarri ugari ditugu.

Mariarats 10 Beasain
Tfno 943 88 86 84

sukalderik goxoena

eredu S. Coop.

Ola auzoa,4 LEGORRETA
☎ 943 80 61 00 - Faxe: 943 80 63 74

Lorategietarako
eta hondartzarako
altzariak

Diseinuko altzari
modernoak

Jai zoriontsuak denoi!



BEASAINGO LOINATZ JAIK




**BEASAINGO
UDALA**

Agurra:

Urtero bezala iritsi zaizkigu Loinatzak eta lerro hauek aprobetxatu nahi nituzke, bai herritarroi eta baita beste lekuetatik festa hauek geure artean igarotzera etorri zareten guztioi ere, nire agurrik beroena eskaintzeko, bereziki herritik kanpo edo gaixo zaudetenoi eta jai hauek igarotzerik izango ez duzenoi.

Prestatu dugun egitarauan, Udalak herriko elkarte desberdinekin elkarlanean osatutako ekintza ugari eskaintzen zaizkizu.



Jon Jauregi Bereziartua
Beasaingo Alkatea

*Ondo-ondo
pasa Loinatz
jaiak!!!*

Igaro ditzagun beasaindarrok hain maiteak ditugun festa hauek betiko moduan, alaitasunez, pozez eta elkartasunez. Bakea eta elkarrenganako begirunea izan daitezela, ohi bezala, Loinatz jai hauen ezaugarri. Izan daitezela, zahar, gazte eta haurrak elkartuko dituzten festak. Hori da beasaindarrok bihotz-bihotzez nahi duguna.

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D ereduetan



TITULAZIOA:

Erizaintzako laguntzaile-teknikaria.

IRAUPENA:

1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi),
lantegietan egiten den prestakuntza
barne (400 ordu).

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- ✗ Ospitaleko erizain laguntzailea.
- ✗ Lehen artapenetako laguntzailea.
- ✗ Kontsulta pribatueta.
- ✗ Zaharren egoitzetan.
- ✗ Hortz-kliniketan laguntzailea.
- ✗ Gaixoen zaintza.

**Izen ematea:
maiatzaren 1etik 24 arte.**

J.M. Iparragirre B.H.I.
Santa Barbara Bidea z/g.
Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943 721413- 943 721403
E-posta: jmiparragirre@edunet.es



Loinatz jaiak

Berriro ere iritsi zaizkigu Loinatzak. Maiatzaren 10ean hasi eta 19a bitarte luzatuko dira aurtengo jaiak. Eta hasiera, azken urteotan ohitura bihurtu den moduan Murumendiko Mariren jaitsierak emango dio. Aurtzaka dantza taldekoekin batera, herriko edozein jendeak dauka bertan parte hartzeko aukera. Sorgin edo baserritarrez moztortuta, antortxak eskuan dituztela, 22:30ak inguruan Udaltzeko plazara inguratuko dira trikitixaren laguntzaz, kantari, irrintzika eta dantzan. Mari, Murumendikoa zela esaten zenez, bertatik jaisten denaren antzezpena egiten da. Jarrera pizten den suziarekin ematen zaie jaiak hasiera ofizialki behintzat.

Egitarauaren azala

Aurtengo Loinatz jaietarako egitarauaren azala eta kartelaren diseinua, Raul Piñeirok egin du. 'Melkor' lanarekin irabazi zuen Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko egin zen lehiaketan.

Urrezko barea

Beti-Bizi Kultur Elkarteak ematen duen saria da, herriaren alde zerbait aipagarria egin duten pertsonak eskertzeko asmoz. Aurten, Beasaingo futbol taldeak eramanngo du saria. Urrezko Barea maiatzaren 17an banatuko da Beti-Bizik 'Beasain jaietan' aldizkarian parte hartzen duten lagunekin egiten den afarian.

Trafiko mozketak eta aldaketak jaietan

Loinatz jaiak direla eta herriaren erdialdean trafikoa etenda geldituko da. Beraz baimen berezia jaso beharko

dute Udaltzaingoan, edaritegien jabeek, salgai-banatzailerak eta Zaldizurreta kaleko 3, 5, 7, 9, 11, 13, 15, 17 eta 19; eta Kale Nagusiko 5, 9, 22, 34 eta 36an dauden gara-jeetako erabiltzaileek.

Ondorengo egun eta ordu hauetan trafikoa gelditu egingo da herriaren erdialdean:

Maiatzaren 10ean eta 17an: 22:00etatik hurrengo goizaldera arte.

Maiatzaren 11n: 11:30etatik 15:00etara eta 18:00etatik hurrengo goizaldera arte.

Maiatzaren 12an: Arratsaldeko 5etatik hurrengo goizaldera arte.

Maiatzaren 13an: 13:00etatik 15etara eta 18:00etatik hurrengo goizaldera arte.

Maiatzaren 18an: Arratsaldeko 6etatik hurrengo goizaldera arte.

Maiatzaren 19an: Arratsaldeko 5etatik 10ak arte.

Era berean debekatuta gelditzen da maiatzaren 11n, goizeko 9,30etatik aurrera eta maiatzaren 12an, gaueko 12ak arte ondorengo kale hauetan aparkatzea: Kale Nagusia osoan eta J.M. Iturriotz kalean letik 13ra.

Herrirako sarrerak honako hauek izango dira: Antzizar bidegurutzetik Barrendain Plazaraino (Geltokiraino) eta Lazkaibar auzoan zehar. Ordizia-Zumarraga norabidea irekita egongo da.

Autoen gidariei jakinarazten zaie bestalde, Beasaina jaietara etorri behar badira, lehen Bernedoren fabrika zen lekuan aparkalekua dagoela eta Senpereko Merkatal Zentruak duen aparkalekua ere erabil daitekeela.

Nekane Altuna



Igartzako multimedia informazio gunearen aurkezpena

Maiatzaren 17an 19:00ean egingo da aurkezpena Igartza jauregian. Igartzako Multimedia informazioko gunea zabalduko dute egun honetan. Web orriaren antzekoa izango da baina desberdintasun batekin, ez dago Interneten sartu

beharrik, tokian bertan dagoen ordenagailu batean sartua dago informazio guztia. Informazio hori, multimedia eran eskaintzen da; bideoak, animazioak, testuak, argazkiak ahotsa eta musika, dena elkarrekin doa. Guneak modu interaktiboan funtzionatzen du, hau da, bisitariak dagoen informaziotik nahi duena aukera dezake. Igartzako jauregia, errota edo aukeratu dugun lekuetako panoramikak erakutsiko zaizkigu. Kamerak 360 graduko bira osoa ematen du.

Igartza multzoa multimedia sistema honen bidez bere osotasunean ezagutzeko 30-40 minutu behar dira, baina normalean bisitariak kontsulta txikiak egiten dituzte.

Erakusleihen lehiaketa

Dendetako erakusleihen lehiaketan, epaia jendeak emandako botoz eratua izango da. Botoa eman nahi duten pertsona guztiek, Beasaingoak izan ala ez, Segura Irratira deitu beharko dute, maiatzaren 15, 16 eta 17an. Botoa ematen dutenen artean erosketak egiteko baleak zozketatuko dira.

KzGunearen ordutegi berria

Formazio eta nabigaziorako zentroak bere ordutegia aldatu du bezeroei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzeko asmoz: 9:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 19:00etara.



Dolarea taberna-jatetxe berria

Dolareako semeak, Iban Matek, Arantxa Ranchorekin batera, tren geltoki parean ireki berria du Dolarea taberna-jatetxea. Dolareakoa izateaz harro, tabernari nortasun berezia eman nahi izan dio bikoteak. Barruan, Dolarea inguruko auzoko baserri eta eraikuntzak ikus daitezke argazkietan. Egunko menuak, enpresa menuak, karta zerbitzua eta ospakizun otorduak eskainiko dira bertan, pintxo aukera zabalarekin batera.

Bosgarren edizioa, 400 kilo gazta

Antolatzaileek, sekula, zerura gehien begiratu duten Gazta Eguna izan zen aurreko igande, maiatzak 5, ospatutakoa. Iragarpen beltzenak ordea ez ziren bete, eta goizean goiz botatako euriarekin eutsi

zion eguraldiak. "Eguraldiak eutsi dio behintzat eta.." antolatzaileek zuten kezkarik nagusiena gaindituta zegoen. Hortik aurrerakoak espero bezala joan ziren.

Hego Euskal Herriko 20



artzain izan ziren Idiazabalen. 18 Artzain Gazta elkarteak. Iparraldeko ordezkari bat ere izan zen, Urruñatik etorritakoa. Guztien artean 400 kilo gazta jarri zituzten, doan, jendeak dastatzeko.

artaldean izan zuen herriko artzain honek. Denborak erakutsi dizkio Joxeri ofizio horrek dituen sekretu guztiak eta etxetik kanpora lanean ibilitakoa den arren, ardiak inguruan izan gabe ezin izan du etsi.

Gazta onena

Guztietatik jan ondoren, jendeak iritzia emateko aukera izan zuen. Gazta onena Ze-raingo Maria Anjeles Iñurragetik egindakoa zela erabaki zuten bisitariak. Beraien botoen bidez erabaki zen era berean artzainek jarritako postuetatik dotoreena zein zen, saria Jesus Aranburu idiazabaldarrak jaso zuen.

Idiazabal Jatorrizko Izenaren Kontseiluko ordezkariak gustura eta harrituta zeuden jendeak gazta dastatu eta onena zein zen erabakitzeke hartzen zuen astia ikusita.

Omenaldia

Gazta Egunaren bosgarren edizioak, aurrenekoan ezarritako ohiturari ere eutsi dio: herriko artzain bati omenaldia egitea. Aurten, Arizti baserriko Joxe Agirrek jaso du herritarren esker ona. 69 urteko artzainak ia bizi guztian ardiak gertu izan ditu, "orain ere etxe inguruan dut artalde, horiek falta bazaizkit, seinale txarra" esan zuen Joxek omenaldia jasotzerakoan.

Garai batean 200 buruko

Mamia

Gaztarekin batera, mamia ere estimatua izaten da Gazta Egunean. Plazan jarritako postuko mami guztiak berehala saldu zituzten. Herriko hirugarren mami txapelketako sariak ere banatu ziren. Jesus Aranburuk eskuratu zuen lehendabiziko saria, Lurdes Intxautsik bigarrena eta Belen Berasategik hirugarrena.

Idiazabaldarrak, inguruko herritakoak eta bisitari gehiago ere izan ziren Idiazabalen. Gonzalo Saenz de Samaniego Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburua eta Jon Mikel Murua Gipuzkoako Diputazioako Nekazaritza diputatua izan ziren, besteak beste. Iazko bisitaren ondotik, Kataluniako Seu d'Urgell herriko ordezkari berritako ere Idiazabalen izan zen asteburua pasatzen.

Bosgarren edizioak utzitakoak aztertuta, begiak, ideia berriak eta asmoak datorren urteko maiatzera begira dau-de.

Xabier Urteaga



KZ gunea

KZ gunea martxan da dagoeneko eta arduradunek ikastaroak eta mintegiak antolatu dituzte. Internet erabiltzen ez dakienarentzat "Nabigatzen hasi" ikastaroa antolatu dute egun eta orduetegi ezberdinetan, 6 orduko saioa egiteko ordutegi eta egun aukera zabala dago. Internet erabiltzen dakienak, "Sakondu Interneten" ikastaroa egin dezake. 16 ordukoa da eta maiatzaren 13an eta 23an hasiko da, goizetan edo arratsaldetan egin liteke.

Ikastaroez gain, gai konkretuei buruzko 2 orduko mintegiak antolatu dituzte. Maiatzaren 16an "Zure gogoko kanala sintonizatu" izango da gaia. Horrekin batera, ardoa, etxebizitza edota bidaiei buruzko mintegiak egingo dira maiatzean. Informazioa eta izen ematea, KZ gunean, Pilar Eneako ganbaran.

Igerilekua

Igerilekuko arduradunak aukeratzeko deialdia egin du Udalak. 18 urtez gorako herritarrek egin dezakete eskaria maiatzaren 20a baino lehen. Ez da sokorrista titulurik behar.

Uda Kanpaina

Uda kanpainako arduradunak aukeratzeko deialdia zabalik dago. Ekainaren 5 baino lehen eman behar da izena. Haurrekin egingo diren ekintzen programa aurkeztu behar da Udaletxean.

Udaletxe berria

Apirilaren 26an, eguerdiko 12etan, inauguratu zen Udaletxe berria. Udal agintarien eta herritarren ondoan, Koruko Aizarna, Hirigintza eta Arkitektura diputatua izan zen.

Estilo klasikoa eta moderno uztartzen ditu Udaletxeak. Argitsua da oso. Pedro Izaskunek eta Migel Anjel Irazabalbeitiak egin dute Udaletxearen proiektua. Bi hormetan, Olaberriko armariaren zatiak margotuak

azaltzen dira. Isa Garmendiak egin ditu margolanak.

Lau solairu ditu Udaletxeak, eta bi sarrera. Behe solairuan, udaltzaina, epaitegia eta artxiboa daude. Lehenengo solairuan, Idazkaritza, alkateztza, gizarte zerbitzuak, kultura arloa eta bilera gela bat daude. Bigarrenean dago batzar aretoa. Aparejadorearen gela ere bertan dago, bi bilera gelekina batera. Azkeneko pisuak azkenik, ganbara deitua, zurezko egitura du.



Ezkioko jaiak

Atzo, maiatzak 8, festa eguna izan zen Ezkion. Meza nagusia, hamaiketako eta herri afaria izan ziren, Olarte Anaiak trikitilariak alaiturik.

Asteburuan ere, festa izango da. Jarraian duzue egitaraua:

Maiatzak 11, larunbata:
16:00etatik 21:00etara:
Haurrentzako jolas parkea.

16:00etan: Mus txapelketa. (Bikotekako batek herritarra izan behar du).

18:00etan: Gabiriako Goruntz dantza taldearen jaialdia.

Gauean: Erromeria Lutzurdiorekin.

Maiatzak 12, igandea:
12:30ean: Toka txapelketa.

18:00etan: Herri-kirolak: Azurmendi eta Txapartegi aizkolariak eta Aimar Irigoien harrijasotzaile gaztea.

Egun guztian zehar herriko trikitilariak girotuko dute herria.

HAURRENTZAKO GAIK

Araba kalea, 1 ORDIZIA
Tel.: 943 88 15 13

200m²-etan aukera zabala:

Quinny
Arrue
Bebe-confort
Red Castle
Maxi-cosi
...



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Bikotekako bola txapelkun

Gipuzkoako txapelkun geratu zen, maiatzaren 5eko Lasarte 2. eta azken saioan, Jokin Izagirrek eta Martxeliño Agirrek osatutako bikotea (186 birla). Eguneko saioan Jokin lehenengo geratu zen, marka harrigarria eginez (8 botalditan 54 birla).

Futbola

Asteburuko emaitzak: Regionalak: Pedrusko 4-2 Segura. **Jubenilak:** Bergara 0-0 Segura. **Infantilak:** Aizkorri 0-3 Anaitasuna.

Asteburuan etxean: Infantilak: Aizkorri-Arrasate (11:30). **Jubenilak:** Segura-Elgoibar (15:30). **Regionallak:** Segura-Bergara (17:15).

Labur-labur

● **San Joanak.** Herriko elkartea, erakunde eta partikularrez osaturik maiatzaren 2an osatu zen festa batzordea. Hurrengo bilera maiatzaren 14an, 19:00etan izango da Udaletxean.



Etxeberri baserriko ardia, apirilean izandako hiru arkumeekin.

Ardi emankorra: 16 hilabetetan 8 arkume

Etxe ardi batzuk dituzte, Segurako Etxeberri baserrian, haietako batek 8 arkume sortu ditu 16 hilabeteren barruan. 2000. urteko gabonetan erditu zituen lehenengoz, 2001eko urriaren hasieran beste bi, eta orain apirilaren 14an erditu ditu beste hiru. Inongo arazorik ez du izan ardiak, ez erditzerakoan ez eta hazterakoan, Etxeberriko Joanito Lizarraldekin kontatu digunez.

Pala amaitu, futbitoa hasi

Urtarrilean 25 bikoterekin hasi zen pala txapelketa amaitzek dago. Maiatzaren 12an jokatuko dituzte final-lurrekoak. Xanet Garmendiak eta Imanol Intxaustik, Josetxo Orrigain eta Egoitza Berasategiren kontra jokatu dute alde batetik eta Xabi Etxeberriak eta Joseba Etxeberriak aste honetan sailkatuko den beste bikote baten aurka bestetik. Finala eta 3. eta 4. postuak San Isidro egunez jokatu dira, arratsaldeko 6etan hasita.



Iazko talde txapelketa: 'Guk asteazkenean'

Koadrilen arteko II. Futbito txapelketa

Kirol Elkarteak antolatuta, maiatzaren 19an hasi eta San Joanetako koadrila egunean amaituko da. Talde kopurua-

ren arabera erabakiko da txapelketa nola egin. Partiduak igande goizetan jokatu dira. Izena emateko azken eguna maiatzaren 12a (tabernetako orrietan).

● **Santa Kutzetako kirol emaitzak.** Txirrindularitza: jubenil mailako Gipuzkoako txapelketaren irabazlea, Bruesa taldeko Iñaki Anzizar lezotarra. **Toka:** gizonezkoetan Luix Oiarbidek irabazi zuen (14tik 5 txapa); emakumezkoetan Eduarda Telleria izan zen onena (14tik 3 txapa).

● **Kirol eskolarra:** Mendi irteera Amezketako Arritzagako meategira, maiatzaren 19an goizeko 8,30etan plaza-rtik irteera.

Joseba Telleria



Santa Barbara ermita dagoen tontorra herriatik ikusita.

Santa Barbara eguna

Maiatzaren 12an izango da Santa Barbarako eguna aurren. Kortaberri auzokoek mendi tontorrera igotzen direnentzat pronto izango dituzte kafea, gailetak eta anixa. Goizeko 9etan, auzoan hildakoen aldeko meza emango da. Mezaren aurretik, bertako pago adar bat erabiliz, lurrak, ganaduak eta etxeak bedeinkatuko dira lau haizetara. Mezaren ondoren, traktorean igotako hamaiketakoa eskainiko dute auzotarrek (udalaren laguntzaz).



Aguazila izan ohi da herritarrei ardo partitzen diena.

San Ixidro eguna

Maiatzaren 15ean baserritarrez gain, kaletarrek ere ospatuko dute San Ixidro. Arratsaldean, buruhandi eta erraldoiak aterako dira txistulariekin. 18:00etan San Ixidro pala txapelketaren finala. Iluntzean, San Ixidro eguneko meza kapillan. Ondoren, Azpilla dantza taldearen eta herriko trikitilarien emanaldia plazan. Hauekin batera hasita, ardo partiketa izango da eta ondoren herri afaria trikitilarietaz alaituta.



Arantzazura peregrinazioa

Urteroko legez, bere antzinasuna historian zehar galtzen den Peregrinazio hau aurten ere egiteko garaia iritsi zaigu. Aurten maiatzaren 19 eta 20an burutuko da. Ostatua itxita dagoenez, astelehen iluntzeko afariaren antolakuntzak zenbait aldaketa izan ditu, batez ere, afaria kanpotik ekarri beharko baita eta izenematea eta kanpotik ekarritako afariaren ordainketa Udaletxean aurrez egin beharko da.

Maiatzak 19, igandea:

8:00etan: Arantzazurako lehen irteera autobusez Apeaderoraino.

10:00etan: Arantzazurako 2. Irteera autobusez Apeaderoraino.

13:00-13:30ak aldera: bazkaria Udalak eskainita.

17:00ak aldera: Peregrinoen azken txanpa Arantzazuraino.

20:00etan: Errosarioa Santutegian.

20:00etan: Autobusa Zegamara.

21:00etan: Afaria.

Oharra: Elizako portikuan, ohiturari jarraituz, gastuei aurre egiteko herritarren laguntza jasotzen da, bai la-

runbateko meza aurretik eta ondoren, bai autobusen irteeretan eta baita igandeko meza aurretik eta ondorenean ere.

Maiatzak 20, astelehena:

8:00etan: Autobusa Zegamatik Arantzazura.

10:15ean: Goiko Bentan herritarrek elkartu eta Santutegiraino prozesioa herriko agintari eta txistulariekin.

10:30etan: Meza.

13:30ean: Bazkaria.

15:00ak aldera: Zegamara oinez datozenen irteera.

16:30etan: Zegamara autobusez itzuliko direnentzat irteera.

18:00ak aldera: Merienda Oazurtzen Udalak eskeinita.

19:00ak aldera: Oinez dato-

Kultur ekitaldiak

Maiatzean zehar, Arantzazuko Peregrinazio baldin bada ere ekintzarik nagusia, badira zenbait kultur ekitaldia garrantzitsu ere: Maiatzaren 6an, astelehena, 17:30ean, Tobera Musika Eskolako Hizkuntza Musikaleko ikasleen erakustaldia.

Bertan Hizkuntza Musikaleko klaseetan zer-nola ikasten den erakutsiko da. Kultur Etxean eta maiatzaren 8an, akordeoiko ikasleen entzunaldia, 17:00etan Kultur Etxean hau ere.

Osasuna eta elikadura

Maiatzaren 15ean, 19:00etan osasuna eta elikadurari buruzko hitzaldia Udaletxean. Hizlaria: Ana el Busto aditua izango da gure artean.

San Isidro eguna

Baserritarrek ere beren eguna ospatzeko asmoa dute. Hori dela eta maiatzaren 15ean, eguerdiko 1ean Meza izango dute Parrokian, ondoren bazkaria Otzaurteko Bentan. Bazkari honetan parte hartu nahi duenak, 943 801625 (Juani) edota 943 801184 (Maria Angeles) telefonora deitu behar du, eta izena ematerakoan Otzaurtera joateko modurik edo baduen adieraztea eskatu dute antolakuntzatik, izan ere, non joanik ez duenarentzat ere non joana jarriko omen dute eta.

zenei ongi etorria San Bartolome Ermitaren ondoan, eta haurrentzat goxokiak.

19:15ak aldera: Ama Birjinaren ongi etorria Zupurrutin eta ondoren Prozesioa San Martin Parrokira sartuko da herriko txistularien laguntzarekin. San Martin parrokian Agurra (Salbea) bertaratuei.

Ondoren, Kasinoko XIV. Ipuin Lehiaketaren sari banaketa plazan.

19:30ean: Otarteko eta ardo banaketa udal arkupeetan.

21:00etan: afaria Udaletxeko arkupeetan trikitilarietara.

Izen-emateak:

Autobusetarako izena eman eta txartela jaso behar da, udaletxean, maiatzaren 15aren aurretik. Igande goizekoetarako ezik, herrian erroldatuek lehentasuna izango dute.

Pazkoa bigarreneko afariarako udaletxeko arkupeetan eta Ostatuko jangelan tokia hartzeko izena emateko epea, maiatzaren 15 aurretik.

Oharra: Aurten Ostatua oraindik ireki gabe izango denez, Beasaingo Artzaienena Jatetxetik emango da afaria, bai Ostatuko jangelan eta baita udal arkupeetan ere. (Norbaitek etxetik edo beste tokiren batetik ekarri nahiko balu, udal arkupeetan urtero bezela tokia eskatu eta afal dezake). Izena Udaletxean eman beharko da bi kasuetarako eta Artzaieneko afaria nahi duenak aurrez Udaletxean ordaindu beharko du.

Edurne Albizu





San Isidro eguneko ospakizunak

Maiatzak 15, San Isidro eguna, baserritarren eguna. Ospakizun eguna izango da herrian.

Ilunabarreko 7etan herri meza izango da eta ondoren, herri afaria Kale-Txiki jatean. Afalondoren, Joxe

Agirre eta Txomin Garmendia bertsolarien jarduna izango da.

Herri afarirako izena emateko azken eguna, datorren astelehena, maiatzak 13a da. Udaletxean eman behar da izena.



On-Bide elkarteko XVIII. mus txapelketa

Maiatzaren 4an On-Bide Elkartean XVIII. Mus txapelketa herrikoia jokatu zen. Guztira 16 bikotek parte hartu zuten eta hauetatik 2 emakumezkoak osaturikoak. Hona hemen lehendabiziko lau postuak eskuratu zituztenen zerrenda: **Txapeldunak:** Pako Irastorza eta Ramon Zubeldia; **txapeldun ordeak:** Juanito Garmendia eta Joakin Urretabizkaia; **3. postuan:** Luisa Arruabarrena eta Dolores Matxain eta **4. postuan:** Santi Garmendia eta Alex Martinez.

Antolatzaileek esker ona adierazi nahi diete txapelketa honetako laguntzaileei: Oteñe erretegia, Kale-txiki jatetxea, Iguarte sagardotegia (Usurbil), Iñaki Dorronsoro harategia, Ugalde edariak, Euskadiko Kutxa, Carrefour Goierri, Eroski, Lagun-aro aseguruak, Segura irratia eta Gaintzako udalari.

Maiatzak 12: Altzagarateko jaia

Altzagaraten, maiatzaren 12an, festa eguna izango da. Jarraian duzue prestatu den egitaraua:

12:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Jexux Mari Irazu eta Millan Telleria bertsolariak eta Epelde eta Larrañaga trikitilariak.

14:00etan: Bazkaria bertako jatetxean.

18:00etan: Toka txapelketa.

Arratsaldean hasi eta gauerdia arte, berriro ere bertsolari eta trikitilarien saioak izango dira.

Pako Zubeldia





Bukatu dira Sanprointzioak

Txarangek, musikak eta giro alaiak bete dituzte egun haue-
tan Lazkaoko kaleak. Baina
orain. Hurrengo urterarte or-
dea, agur esan behar zaio San
Prudentziori. Aurtengoan
eguraldia lagun, festa politik
pasa ditugu lazkaotarrak. Eta
egitarauak ere aukera ezber-
din ugari eskaini dizkigu. Ki-
rola, musika edo artisau lanak
ikusteko erakusketak dira
besteak beste aurtengo San
Prudentzio jai haue-
tan izan ditugunak. Eta artisauak aipa-
tuta ezin ahaztu dezakegu
aurtengoan Prontxio Jauregi
pelotagile lazkaotarrari egin
zaion omenaldia.

Aurtengoan ere beste bere-
zitasun bat izan dute Lazkao-
ko San Prudentzio jaiak: le-

hen aldiz Lazkaoko martxa
entzun ahal izan dugu danbo-
rradan. Festen aurreko azken
egunetan haurrak entsaiatu
eta entsaiatu ibili ziren, mar-
txa berria ongi ikasi nahian.
Igandean, San Prudentzio
egunean, entzun genuen Ja-
vier Muruamendiaraz lazkaot-
arrak sortutako herriko mar-
txa.

Susto txiki bat ere eraman
zuten askok sardinak jatera
joan eta sardinen orde-
z txistorra eman zieten-
ean. Baina sardinarik ez omen zegoen
eta....

Eta poza, eta poz handia
Koro Madrazo eta Ignazio
Altunak bakailaorik hoberena
prestatu zutela jakin zutene-



an. Esparru elkartetik aurkez-
tu ziren biak, elkarte ezberdi-
netako beste zazpi bikotere-
kin batera. Goizean sukaldari
lanetan ibili ondoren, epai-
mahaiak beraien lana saritu
zuen. Pozik eraman zuten bu-
ru gainean XIV. Bakailao txap-
elketako txapela!

Gauza gehiago ere izan di-
ra noski baina ezin orain de-
nak gogoratu. Halere aurtен-

goak pasa dira eta orain da-
torren urtekoari itxaron be-
harko diogu. Gainera hurren-
go urtean, besteak beste Ba-
kailo txapelketaren 15. edi-
zioa ospatuko da eta antola-
tzaileek ospakizun handiago-
ren bat egiteko asmoa omen
darabilkite. Ia bada hurrengo
urtean festak ongi datozki-
gun!

Oihana Sarasola



Baserritarren eguna

Datorren asteazkenean, hilak
15, ospatuko dute herriko ba-
serritarrek euren zaindariaren
eguna, San Isidro. Eguerdiko
12etan meza izango da, eta
ondoren urteroko lagun arte-
ko bazkaria Ostatur. Joateko
asmoa duenak iganderako
izena eman behar du jatetxe-
an (943 88 07 34).

Eskolarteko pelota txapelketa

Herriko pelotariak Beasaingo
Loinazpe ikastetxearen izene-

an parte hartu dute Gipuzkoa-
ko eskolarteko pelota txapel-
ketan. Mikel Asurabarrena,
Iñigo Igartzabal eta Gorka
Maizek osatu dute Loinazpe-
Gabiria taldea eta benetan lan
txukuna egin ere bai; txapel-
dunorde geratu dira, Ataunen
jokatutako finalean Zarau-
tzen kontra 5-4 galdu ondo-
ren. Jokamodu desberdina
erabiltzen dute proba hone-
tan, izan ere talde bakoitzeko
hiruna kideak denak denen
aurka aritzen dira, bai bana-
ka, bai binaka, guztira bede-

ratzi partida jokatuz. Azken
emaitzak txapela garesti sal-
du zela agerian uzten du.

Apaizak urrezko eztaiak

Gabiriako parroko den Koldo
Sarasola pasiotarrak berro-
geita hamargarren urteurrena
bete du aurtен apaiztu zela.
Lehen ikasketak bertako ko-
mentuan egin zituen gainera.
Data seinalatu hau ospatzeko
ospakizun berezia egin zieten
Koldori eta urrezko eztaiak
bete dituzten bere kideei Do-
nostiako gotzaitegan.

Ura ateratzeko zundaketak

Eusko Jaurlaritzak eta Gipuz-

koako Diputazioak ur edan-
garriaren plan berezi bat au-
rrera ateratzekotan dira, da-
goen eskasiari aurre egin
nahian. Irtenbidea lurpeko
urak probestean egon daite-
keela pentsatuta zundaketa
edo sondeo batzuk aurreikusi
dituzte. Horieta-
ko bat Gabi-
rian egingo dute, sakonera
handienekoa gainera; Troiako
akuiferoan 500 metroko zula-
keta egiteko proiektua dago,
oso obra berezia, aidanez,
normalean egiten direnek
100-150 metro izaten baiti-
tuzte.

Aimar Maiz

Saharako Dairak de Miyek herriarekin senidetu da Ormaiztegi

Ormaiztegi eta Daira de Miyek de la Wilaya de Auserd Saharar herriaren arteko senidetzea burutu zen apirileko azken asteburuan. Euskadin Saharar herriak duen ordezkariak Ormaiztegiko udalari eginiko proposamenari jarraituz burutu da aipatu ekimena.

Saharar errefuxiatuen kanpamentuetara bidai instituzionala burutu zuten euskal herriko hainbat erakundeetako ordezkariak, beraiekin bidaiatu zuten udara gure artean igarotzeko saharar haurrak hartu izan dituzten familieta-ko kide batzuek ere.

Saharar errefuxiatuen kanpamentuetara hurbildu ziren orain arte senidetu izan diren erakundeetako ordezkariak; aldi berean oraindik Saharar herriarekin senidetu gabe aurkitzen diren herriei gonbidapen berezia egin izan zieten bidai instituzionalan parte har zezaten eta saharar herria gertutik ezagutu dezaten. Gure herritik gonbidapen honi baietza eman izan zaio eta ondorioz apirilaren amaieratik aurrera Ormaiztegi Saharar herriarekin senideturik aurkitzen da. Bida instituzionalari hasiera apirilaren 26an eman zioten itzule-
ra, berriz, maiatzaren 1ean egin zuten.

Saharar errefuxiatuen kanpamentuetara bidai instituzionala burutuko zuten Euskal Herriko hainbat erakundeetako ordezkariak. Gainontzeko ordezkari eta erakundeetako kideekin batera gure herriko ordezkari gisa Iñaki Maiora alkatea joan zen, bera izan zelarik Ormaiztegi eta Daira de Miyek de la Wilaya de Auserd Saharar herriaren arteko senidetzaren lekuko. Saharar herriak gure herriaren oroigarria izan dezan eta senidetzaren lekuko bezala gera dadin, Iñaki Maiora alkateak Ormaiztegiko zubia-
ren irudira eginiko brontze-ko eskultura eraman zuen oroigarri gisa. Herriko alkate-az gain, Saharar herriaren egoera oso gertutik bizi eta ezagutzen duen Gurutze Iri-
zar herritarra ere aipatu bidai-ko partaide izan zen.

Abiapuntua jarri dugun honetan, Ormaiztegi eta Saharar herriaren arteko senidetzea, beraieganako hurbilpen eta solidaritatean gauzatu dadila itxaroten dugu. Gure eskuetan dagoena eginez saharar herritarrek askeago izan daitezen lortzea da helburua, beti ere herrien arteko elkarlan eta solidaritatean oinarrituz.

Aitziber Murua



Barduliarrak elkartearen 25. urtemugako ekitaldiak

Aurtengo honetan Barduliarrak elkartek bere 25. urtemuga betetzen du. Aipatu zilarrezko urtemugaren aurrean elkartekideek ospakizun bereziak antolatu eta ospatu izan zituzten apirilaren 27an eta 28an.

27an mus txapelketa jokatu zuten. Txapelketa antolatzeko Irnasa Euro S.L., Ugalde edariak, Elozegi ardotezia, Carrefour eta Masset De Leonen laguntza jaso dute. Giro bikainean burutu zen txapelketa eta 16 bikotek hartu zuten parte. Juan Kruz Gaztañaga eta Jose Luis Acedo izan ziren irabazle eta bigarren, Jabier Azpiazu eta Martin Alberdi.

Igandeko ospakizunei hasiera, berriz, meza nagusiaren bitartez eman zioten. Barduliarrak elkarteko bazkide ohien alde eskaini zuten meza. Ondoren toka txapelketa jokatu zuten. 20 bat lagunek hartu zuten parte. Joxe Ariztimuño izan zen irabazlea eta bigarren Juan Kruz Gaztañaga.


25. urtemugako ospakizunei amaiera Lierniko Mujika jate-txean 52 bazkide inguru elkartu zireneko bazkariaren bitartez eman zieten.

Beasain-Durango errepidearen maketa

GI-632 errepidearen saihesbideko Ormaiztegi-Zumarraga zatia-
ri dagokion maketa Udaletxeko erakusketa aretoan ikusgai aurkitzen da: astegunetan, 9:00-14:00etara eta asteburuetan, berriz, igandeetan, maiatzaren 12an, 11:00-14:00etara.

Ormaiztegi-Zumarraga autobide zatia Beasain-Durango zeharkako korridorearen zatia dugu. Zati hori Beasaindik Ormaiztegitiraino egingo dagoenaren jarraipena da, Zumarragaraino iristen da Eitza gainean Urola bailarako errepidearekin bat egiten du. Orain GI-632 errepidearen saihesbidea da Ormaiztegitik Zumarragarainoko zatia, baina autobidearen ezaugarriak ditu.

asteartetik ostiralera
eguerdietan irekita
aurretik txanda eskatuta



Zelata kalea 37, behea Beasain
Tel 943 88 02 97

extensio berriak
deskonexio mozketak
kolorea hirukietan
kolore ekologikoa
estetika
mikropigmentazioa
manikura/ pedikura
aurpegiko pilingak

Astelehena 9:00-12:30 eta 15:00-17:00 / Asteartea / Asteazkena / Osteguna / Ostirala 9:00-17:00 / Larunbata 7:30-13:00

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA



GAES

ENTZUMEN ZENTRUAK

GORTASUNAREN AURKAKO IHARDUNALDIAK

MAIATZAK 13tik 18ra

Dohaineako azterketa

entzumenaren espezialista batek egina



Oso txikiak,
belarriari ezin
hobe egokituko
zaio,
ia-ia ikustezina

Soinu digitala
entzuteko aukera,
azken teknologia



Betiko laguntza,
kalitate ezin
hobe,
erabiltzeko
erraza eta oso
erresistentea.



SAN BENITO IKASTOLA

Euskadi enparantza z/g
E-mail: lazkao@ikastola.net
www.sanbenitoikastola.net
Tel. 943 88 08 00 / Fax 943 88 18 18
20210 LAZKAO

"Europar kalitate kudeaketa sistemaren" araberrako kudeaketa • Gestión según el modelo EFQM

Batxilergoko aukerak:

Giza eta gizarte zientziak
Natur eta osasun zientziak

Izen-emate epea: maiatzaren 2tik 10era



Haur eskola



Haur eta Lehen hezkuntza

DBH eta Batxilergoa



Teknologia berrietara egokituak gaude (internetera lotura gela guztietan)

Trinity College Londoneko azterketak bertan egiteko aukera.

Bailarako herrietatik garraioa.

Giza formazio zabala.

Irakaskuntza, orientazio akademiko eta profesional pertsonalizatuak.

Heziketa mailan eta akademikoki emaitza bikainak.

Aintzakotzat hartzen zaitugu.

Zure etorkizunaz arduratzen gara.



ITURGINTZA - KALEFAZIOA - GASA
BAINU ETA SUKALDEKO INSTALAKUNTZAK
ETXEBIZITZEKO AIRE EGOKITUAK
BERRIKUNTZA LANAK
GREMIO GUZTIEN ARDURA



SUKALDEKO ETA
BAINUKO ALTZARIAK



BULEGOAK-LANTEGIA
USABAL, 11-A
TOLOSA
Tel.: 943 672 620

POLIURETANOZKO LEIHOAK



ERAKUSKETAK:
SAN FRANTZISKO, 10
TOLOSA
Tel.: 943 653 307



Zuberoa Garatzen egitasmoa

Ostiral honetan, hilak 10, eta Udalbiltzak bultzatutako Zuberoarekin bat Auzolanean kanpainaren barnean, zozketa ikusgarria izango da poteo garaian. Tabernaz taberna, euskal produktu preziatuz betetako saski eder bat zozketatuko da. Larunbatean berriz, hilak 11, Ikuskizun mundiala izango da antzokian Txan magoaren eskutik. Herriko txikien nahiz helduenentzat

antolaturiko ekintza hau gaueko 10etan izango da (haurrek 2 euro eta helduek 6).

Herri Urratsera joateko autobusa

Igande honetan, hilak 12, Herri Urratseko zita berri bat ospatuko da Senpereko aintziran. "Hizkuntza herriaren hats" da aurtengo leloa eta Udalak bertara hurbiltzeko

autobusa jarri du. Gazte eta langabetuek 3 euro ordaindu beharko dituzte eta lanean ari direnek 6 euro. Izena emateko epea bihar, ostirala, amaituko da, arratsaldeko 4etan.

Festetako bilera

Maiatzaren 16an, osteguna, aurtengo Santafetako festa egunak eta taldeak aukeratzeko bilera izango da Kultur etxean. Bileraren arratsaldeko 8etan izango da eta herritarren parte hartzea ezinbestekotzat jotzen da.

*Iñaki Gurrutxaga
Saraoli Jauregi*

Lanpostu deialdia liburutegirako

Denboraldi baterako kontratuarekin, liburutegiko teknikari laguntzaile bat kontratatzeko deialdia zabaldu du Udalak. Egin beharreko lana liburu eta aldizkariak absys-windows sistema informatikoan sailkatu eta katalogatzea izango da. Izena emateko epea maiatzaren 30ean amaituko da. Oinarrien eta baldintzen gaineko informazio gehiago izateko deitu 943.16.03.38 telefonora.



Dordonagnekin harremanak

Zerain eta Dordogneko Champagnac De-Belair herrien arteko harremana aspalditik dator, hain zuzen ere bi herri hauek Europako proiektu batean elkarrekin parte hartu zutenetik, duela bospasei urte hasi eta gaur egun arte.

Harreman hau sendotzeko asmoz Zerain eta Champagnac De-Belair herrietako

gazteen artean elkartrukatzeko bati ekin zaio, hau dela eta otsailean aste betez izan ziren Zerainen Champagnac De-Belairreko gazte talde bat, eta joan zen hilean Zeraingo gazteak aste bat bertan egin zuten, egonaldia oso atsegina izan zen eta harreman honekin aurrera jarraitzeko gogoz itzuli dira.

Mari Flor Mendizabal



Bolateak

Apirilaren 20 eta 21eko asteburua bolariantzat bete- bete izan zen, larunbatean hilak 20, Idiazabalen Goierriko txapelketa torneoaren finala izan zuten, bertan irabazle Marcos Madina izan zen 360 punturekin, eta igandean hilak 21 erregularteko finala jokatu zuten Seguran hau Zeraingo Antonio Alustizak irabazi zuen 540 punturekin.

Otsailaren 9an irekiko dugu

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76

ABALTZISKETA



Legazpi kalea, 3

Pottora
KAFETEGIA

ORDIZIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogitarakoak

Mendi ibilaldi neurtua maiatzaren 19an


Aurreko urteetako ohiturari jarraiki, aurtengoan ere Mendi Ibilaldi Neurtua antolatu du Ataun kirol elkarteak. Ibilaldia, datorren maiatzaren 19an, izango da eta Ergoiena auzotik abiatuko da. Iraupen desberdineko bi ibilbide izango dira aukeran. 4 ordu ingurukoa bata eta, ordubete ingurukoa bestea.

Ibilbide nagusia, goizeko 8etan irtengo da Ergoienatik. Atxurreneko zubitik sartu eta galtzadan barrena Berrenoa-ko lepora iritsi, Intsusburuko gaina zapaldu, Igartzako trikuharriak, Saratsamendiko mikeletetxea, Larreluzeko tri-

kuharria eta Zubillo inguruan Ollanga bordara jaitsi behar da Muski aldera hurbiltzeko eta ondoren, beheraka Ergoienara.

Ibilaldi laburra goizeko 10etan abiatuko da Ergoienatik. Hona ibilbidea: Urbitarte, Iturbe, Muñeta, Erkaizti, Altzuaranerreka, Zumardi, Atxurrene, Iberondoabarrena eta Andralezetatik Ergoienara.

Antolatzaileek jakinarazi digutenez, nahikoa ur izango da biderako eta amaieran, ohiturari eutsiz hamaiketakoa.



Kike Amonarrizen bisita

Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatu zen joan den apirilaren 23an. Aurreko urteetan bezala, aurtengoan ere euskal literaturaren munduko idazle baten bisita izan genuen udal liburutegian: Kike Amonarrizena, hain zuzen ere. Bereziki eskolako haurrei zuzendua, irakurketa sustatu eta euskal literatura ezagutzera ematea du helburu ekimen honek. Horrela, aurtun ere Joxemiel Barandiaran eskolako 3. mailatik 6. erateko haurrak izan zituen solas-lagun Kikek. Badira jada urte batzuk Ataungo Udalak eta, bereziki kultura sailak ekimen hau antolatzen duela. Besteak beste, bertan izan dira Joxe Arratibel, Antton Kazabon, Joxerra Gartzia, Kike Amonarriz....

Liburu azoka liburutegian. Honen harira, aipatu beharrekoa da egunotan zehar eta datorren hilaren bukaerara arte, euskal idazleen liburuak %30 eta %50eko deskontuarekin salgai izango direla Udal Liburutegian.

8.700 liburu altxorra eskura liburutegian. Horixe da orain artean bildu den eta eskura dugun liburu kopurua herriko liburutegian. Orain artekoa diogu, hilero-hilero berritzen eta argitaratu berri diren liburuak sartzen baitira. Denetarik aurki daiteke bertan: bertako zein nazio edo nazioarteko idazleen eleberriak, poesia liburuak, haur eta gaztetxoentzako literatura, entziklopedia eta kontsulta liburuak, aldizkariak... Aitziber Arin liburutegiko arduradunak adierazi digunez, **438 bazkide** ditu liburutegiak. Otsailean 199 liburu mailegatu omen ziren, ia 9 liburu eguneko. Kopuru horrek, pixka bat behera egin omen zuen martxoan, Aste Santua tarteko, eta 162 liburu mailegatu omen ziren ia 7 eguneko.

Interneta ere bai. Liburuez gain interneta erabiltzeko aukera ere eskaintzen da. 3º minutuko erabilpena 60 zentimo kostatzen da. **Ordutegia.** Astelehenetik ostiralera 5etatik 7etara eta larunbatetan goizeko 10etatik 12etara.



Joxemiel Barandiaran eskola Gipuzkoako txapeldun alebin mutiletan

Apirilaren 27an, Gipuzkoako Eskolarteko Eskupelotako Txapelketako finalak

jokatu ziren Auzoeta Kiroldegian. Aurreko larunbatean klasifikatutako neska-mutilek jokatu zituzten finalak 3 kategoriatan. Horien artean, herriko eskolako Joan Ander Albisu, Jon Arratibel eta Xiker Zeberio gelditu ziren Gipuzkoako txapeldun alebin mutiletan. Infantil mailan eta, nesketan, Beasaingo Loinazpe ikastetxearen ordezkari genituen Monika Arratibel, Eluska Aierbe eta Maialen Sukia ere suertatu ziren txapeldun. Zarauzko Ikastolako aurka zuten partidua baina hauek berandu iritsi zirenez, partidurik jokatzeko, Loinazpekoei eman zitzaizen txapela. Bestalde, Kadete mailan eta, nesketan, Loinazpeko ordezkari hauek ere, Lazkaoko San Benitokoei gailendu zitzaizen, Garazi Aierbe, Garazi Etxeberria eta Maider Arruabarrena herritarrak. Gainontzeko kategorietan ondokoak izan ziren emaitzak:

Alebin nesketan: San Benito (Lazkao) 4 - Ikasberri (Azpeitia) 5. **Infantil mutiletan:** Loinazpe (Beasain) 4 - La Salle (Zarauz) 5. **Kadete mutiletan:** La Salle (Beasain) 1 - Orioko Ikastola 0. Sariak banatzeaz Karlos Alfonso, Foru Aldundiko teknikaria, Fermin Muguruza eta Koldo Rabadan, Pelota Federazioko ordezkariak eta Jexux Goikoetxea, Ataungo Udaletxeko zinegotzia arduratu ziren.

Eate abesbatza Andoainen

Apirilaren 27an, Andoainen izan ziren Eate abesbatzako kideak. Buruntza Mankomunitateko XIII. Topaketa Musikalean parte hartu zuten bertan. Topaketa musikal honetan Hernaniko "Kantuz" abesbatzak, Lasarteko "Alboka" abesbatzak, Andoaingo "Alberto Agirre" abesbatzak, Hernani eta Andoaingo txistulariek parte hartu zuten eta, Ataungo Eate abesbatzak haien artean. Buruntza Mankomunitateko Topaketa Musikalean, Eate taldeko abeslari den Joxe Bikuñak adierazi digunez, harrera ezin hobea egin zitzaizen Andoainen.

Labur-labur

Joan den astean zendu zen Urbitarte edo Tablako Fernando Etxeberria, 88 urte zituelarik. Doluminak sendiari.

Agurtzane Bikuña

Ertaroko peri ikusgarria

Garai bateko itxura hartu zuen aurreko asteburuan herri-guneak. Zazpigarren urtez jarraian Ertaroko Peri berezia ospatu eta jende ugari bildu zen aipatu gunean. Urtetik urtera berrikuntzak nabarmenagoak dira eta aurtengoan aipatu beharrekoa izan da Kale Nagusiko bi aldeek erakutsi duten itxura berezia. Ordizia herri bilakatu zenean (orain 700 urte pasatxo) lau sarrera nagusi zituen. Gaztelakoa bata, Urdaneta Kaletik Kale Nagusira bitartean, Frantziakoa beste bat, Foruen Pasealekutik Kale Nagusira

bitartean, Arantzazukoa edo Iparraldekoa beste bat, Gargartza Plazatik Legazpia kalera bitartean eta azkenik hegoaldekoa edo bakardatekoa tren geltokitik Arteaga kalera bitartean.

Aurtengoan bi ate bakarrik jartzea lortu bada ere, hurrengo baterako lauak jartzekotan direla adierazi digute jai batzordeko kideek. Bestalde, ertaroko protagonistarik ez zen falta izan. Honela, hor ikusi genituen, arkulariak, malabareak, artisauak, musikariak, antzesleak edota xake partidak. Larunbat iluntzean



ertaroko afaria izan zen Barrena Kultur Etxean.

Ostiraletan peria

Asteazkeneko periak bere horretan iraungo duen arren, maiatzaren 17tik aurrera peria izango dugu baita ere. gaur egungo gizarteak bultzatutako erosketa ohiturak kontuan hartuta, bertako produk-

tuen kontsumoa bultzatu nahian, ostiral arratsaldetan egingo da aipatu datatik aurrera peria hau. Asteazkeneko egoten diren hainbat saltokik ere izango dute kabida azoka honetan, baina baita kalitatezko beste produktu askok ere.

Aitor Calvilloa

Iparra-Hegoa dirulaguntzak

63.106 euro emango ditu aurtengo Udalak Iparra-Hegoa Lankidetzaren Programak garatu asmoz. Gobernu Kanpoko hainbat erakundek 17 proiektu aurkeztu zituzten eta azkenik Udalak 8ri dirulaguntza ematea onartu du. Diru kopuru horretatik 54.692 euro Euskal Fondoari bideratu ondoren honela banatu ditu udalak gainontzeko xoxak: Gipuzkoako Caritasi 4.447 euro Mexikon negutegi bat teknifikatzeko, Hirugarren mundua eta pakeari 10.424 euro Kubako UBPC 3 de agosto-ren ekoizketa-trebetasuna sendotzeko, Medi-

cus Mundiri 8.124 euro Ekuadorreko Orellanako osasuneko lehen arreta sarea sendotzeko, Adeco amistad, desarrollo, cooperación-i 10.440 euro Peruko nekazarierietako buruzagiek justizian sarbidea izan dezaten eta era berean herritarren partaidetzari bide emateko, Taupadak-i 6.525 euro Boliiviako Amazonasen lur sailen jabetza amankomuna lortzeko, Rokpa Euskadiri 2.104 euro Tibeteko Yushun lehen hezkuntza eta medikuntzako eskola eraikitzeko, Manos Unidas 7.212 euro Madagaskarren zainketa medikuen unitatea eta larrialdietarako zerbitzua ekipatzeko eta azkenik, Gipuzkoako Gurutze Gorriari 5.416 euro Uganda-

ko emakume talde bati laguntzeko.

Jende katea Irunen

"Euskararen ofizialtasuna erein" lelopean jende katea egingo da larunbatean, maiatzak 11, arratsaldeko 5,30etan Irunen. Herritar guztion hizkuntza eskubideak bermatu behar direlako eta euskarak azken aldian jasandituen erasoei aurre egin asmoz AEK, EHE, Euskal Konfederazioa, Oinarriak eta Abokatu Euskaldunen Sindikatuak beste hainbat atxekimendurekin batera antolatuta dute aipatu ekimena. Bertaratu nahi duenak autobusez joateko aukera izango du eta horretarako nahikoa da 943-

889174 telefono zenbakira deitu eta txartela enkargatzea (langileek 8 euro eta langabetuek 5). Autobusa 4:30ean aterako da Fray Andresetik.

Nahi baina ezin

Azken unera arte ohorezko "b" mailara igotzeko aukera izan bazuten ere helburu hori lortu gabe amaitu dute rugbykoek denboraldia. Sevilla aldean Ines Rosales taldea mendea hartu arren, 17-18ko emaitza ez zen nahikoa izan. Ordizian 17-23 galdu zuten eta, beraz, 5 puntu eskas besterik ez zaizkie falta izan. Nahi baina ezin. Denboraldi bikaina burutu dute eta 02/03 denboraldiari begi- jarri behar.

GERTU
aholkularitza

TXEkin programarako homologatutako erakundea

txekin Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)
Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

Beasaingo argazki zaharrak

Herrian urteroko festa giroa ez da kontu zaharrak berritzeko une txarra izaten. Beste herritako sendi tartekoak etorri direla eta, bazkal garaiko elkarrizketetara, aspaldiko gertakizunak askotan ekarri ohi dira. Eta antzinako argazkiren batzuk azaltzen badira berriz, zer esanik ez.

Horregatik, festa giroan gaudenez gero, lau argazki zahar idazpide harturik, beren xehetasunak ematera abiatuak natorki-zue oraingoan. Inork kezkarik izan ez dezan, bi gizona eta beste bi emakumezkoenak, noski. Eta gure garaiko eskolatan erakusten ziguten bezala, aurre emakumezkoeri emango diegu.

Orain dela hirurogeita hamar urte, neska-mutilek, bakoitzak bere ofizioa ikasi beharrean gertatzen ziren orduan ere. Neskak etxeko lanak, berean edo besterenean egiteko, eta mutilek baserrian, mendian edo lantegietan familia mantentzeko lain ateratzeko.

Mutilek, baserrian bazan aitaren ondoan, mendian bazan basomutulen arteko koadrilan eta lantegian bazan lankideen artean, behin lanean hasi eta gero ikasten bazuten ere, neskak etxetik kanpora lanean hasi aurretik ikasi behar izaten zuten. Alde batetik, dirudunen etxetara neskame joan behar baziren, sukaldaritza eta etxeko garbiketak egiten zekienak nahiago izaten zituzten; eta bestetik, ezkontzen baziren, horiek denak eta gehiago egiteko lehenbiziko egunetik bakarrik gertatzen ziren beren etxetan.

Horregatik, neskak herriko jatetxeren batera joaten ziren, hila-bete batzutan mahaiak serbitu eta ontzi garbiketak egitearen truke, sukaldaritzan ikastera.

Eta lehenbiziko argazkiak, 1934. urte inguruan, "Fonda Pa-co" jatetxe ospetsuan, sukaldaritzan ikasten aritu ziren neska taldea azaltzen digu.

Ezkerretik eskubira hasita *Justina Zabaleta, jatetxeko etxe-*



koandrea, Felisa Unsain, Ezezaguna, Kontxita Enparantza, Joxepa Mujika, Isidora Etxezarreta, Manoli Azkarate, jatetxeko alaba, Agustina Mujika eta M^a Teresa Azkarate, jatetxeko alaba, dira. Eta denen aurrean eserita dagoena Maria Garmendia.



Bigarrenak berriz, 1931. urte inguruan, jostunaren etxean



Jokin Telleria

**MARKETERITZA
eta ARTEDER
MATERIALA**

☎ 943 16 23 44

Esteban Lasa, 2 C

BEASAIN

**ETXEBE
TABERNA**



Festa onak pasa!

**Zaldizurreta kalea
BEASAIN**

**ARRANO
TABERNA**

Pintxo eta ogitartekoak



*Jaietan ere preso eta
iheslariak gogoan*

**Nagusia, 12
BEASAIN**

josten ikasten aritzen zen beste neska talde bat dugu. Eta, hemen ere ezkerretik eskubira hasita, goiko ilaran *Manuela Esnaola, Agapita Ayesta, Irene Barredo, Bixenta Jauregi, Joxepa Mujika, Patrocínio Garrido eta Matilde Montejo*; erdikoan *Feliziana Altolagirre, Inazia Aranburu, jostuna, M^a Rosa Aranburu eta Teresa Montejo*; eta azpikoan *Margarita Ayesta, Teodora Alonso, Maria Berasategi eta Maria Garmendia*. Ikasle denak ere, 15 eta 20 urte bitartekoak.

Gizonezkoak azaltzen diren argazkiak askoz berrigoak dira, baina badute adierazgarriak ere.

Lehenbizikoan gazte talde bikaina ikus dezakegu. Eserita daudenen artean, erdian dagon Felipe Esnaola gaztearen ezkontza aurreko dei-bazkarira joan zirenak dira. 1955. urtekoa da eta bertan azaltzen diren gazteak, adin askotakoak nahiz izan, hogeita hamar urtetik gorakoak bat edo bi besterik ez dira egongo, eta gehienak hogeita bost urtetik beherakoak.



Asko direnez, ez ditugu izendatuko, baina gehienak ezkon-gaiaren auzotarrak, hau da, geltokiaren inguruko auzokoak nahiz izan, ikus daitezke beheko kalean bizi zirenak ere. Ez us-te dei-bazkaria zela eta, hain dotore jantzi zirenik gure gazteak. Orain dela mende erdi bat Beasaingo gazteak igandero jazen

ginen horrela. Argazkian dagoen batek esan ohi duen bezala, patrikan diru gutxi izango genuen, baina jantzi, edozein markesaren parean.

Eta azkeneko argazkia da berriena. Orain dela 32 edo 34 urte egindakoa. Bertan gizaseme talde berezia azaltzen zaigu; orduko Beasaingo udaltzainak hain zuzen ere. Eta bazkariaren aitzakia, mahai buruan dagoen Inazio Irastorza udaltzainkidea omentzea izan zuten.



Ezkerrean bertan dagoenetik hasita eskubialdera, hauek dira: *Inazio Aldasoro, Silberio Oria, Benito Amundarain, Inazio Irastorza, Miguel Chavarri, José Miguel Urretabizkaia, José Aranburu, Inazio Leunda, Nicolás Muñoz eta Agustín Cacho*.

Ez dakit argazki zaharrak askori niri adinbat atsegin izango zaizuen. Baina herritarren batek, bat edo beste uzten didatenean berealdiko poza hartzen dut eta bere zahartasuna, zergatia eta abar argitu nahian berehala jartzen naiz.

Zueri ere, goiko lau argazki hauek atseginak irudituko zai-zuelakoan, gaurkoz agurtzen naiz.

Festak giro onarekin gozatu.

José Zufiaurre Goya



DEKORAZIOA



Kale Nagusia, 20
Tel./Faxa: 943 16 00 54
BEASAIN

Jai zorianak denoi!



Oinetakoak

San Inazio, 14
☎ 943160434
BEASAIN


Laskurain, 12
☎ 943653786
TOLOSA

ITZALA

taberna

Zaldizurreta, 3
☎ 943 88 30 24
BEASAIN

EDARITEGIA



KAFETEGIA

Festa onak pasa!

Nafarroa Etorbidea, 27 ☎ 943 88 86 81 BEASAIN

Beasaingo Aizkorri Mendizale Elkartek antolaturik 'Aizkorriko bira': 53 km-ko mendi ibilaldi neurtua, ekainaren 2an

Benito Aiestaran,
Aizkorri Mendizale
Elkarteko kideak
eman dizkigu I. Aizkorriko
Biraren xehetasunak, luze
eta zabal.

Zergatik antolatu duzue Aizkorriko Bira mendi ibilaldia?

Aurtengo urtean, urtero bezala zuzendaritza aldaketa egin genuenean, zerbait berritzailea egiteko asmoarekin sartu ginen, urteroko ekintzetatik kanpoko zerbait. Hau zela eta, zenbait ekintza antolatze-ko ideia ibili genuen esku artean, eta guztien artean, iraupen luzeko mendi martxa honek hartu zuen indarrik handiena.

Urtero egiteko asmoa al daukazu?

Gure asmoa, bi urtetik behin egitekoa da. Urte inpareetan Ataungoak beraien "Jentileen bideetatik" antolatzen dutenez (maiatzeko azken igandean), eta bailara berdinekoak izanik urte berdinean biak antolatzea gehiegi izango litza-tekeen, guk urte pareetan antolatzea pentsatu dugu. Data finkorik jarri ez dugu jarri gure "Aitzgorriko Bira"ra-ko.

Zergatik aukeratu duzue ibilbide hau?

Ibilbidearen aukeraketa, bi arrazoi garrantzitsugatik izan zen: bata soziedadearen izena ere nabarmentzegatik; eta bestea eta garrantzitsuena, ibilaldi honetatik ez delako beste iraupen luzeko mendi



martxarik egiten. Beste era batera esateagatik, beste toki batzuk baino gutxiago "esplotatuta" dagoela (Aralar esate baterako). Gainera, iruditu zitzaigun beste mendi martxa askoren ondoan, hau askoz ibilbide naturalagoa dela, hau da, ibilbide oso bat eginez osatzen dela martxa osoa, eta ez besta batzuk bezala toki berdinean alde batera eta bestera ibiliaz.

Eta data hau?

Fetxarena izan da, orain arte izan dugun arazoetan larriena. Helburua garbia zen, "Hiru haundiena" deritzon mendi martxaren aurretik nahi genuen, bertarako prestaketa bezala balio dezan.

Horretarako, Ataungoek beren martxa maizteko azken igandean egiten dutela jakinda, gu ere egun berdinean egiten saiatu ginen, baina kasi erabakita genuenean, enteratu ginen "Txirrita martxa" deritzona ere egun horretan bertan egitekoa dela.

Gero saiatu ginen lehenbailehen beste fetxa bat jarri, eta lehenbailehen informazioa alde guztietara bidaltzen, beste inork gure egun berdi-

nean jarri ez zezan. Horretarako, Gipuzkoa mailan zein mendi martxa egiten ziren enteratu, deitu antolatzaile guztiei, eta fetxa hau aukeratu genuen. Alde guztietara informazioa bidaltzeari ekin genion, eta berehalaxe enteratu ginen "Fortunako ibilaldia" ere egun honetan dela, baina jadanik berandu zen.

Antolakuntza aldetik, edariak, osasun zerbitzuak... nola egongo dira antolatuta?

Antolakuntza aldetik, gauzak ahalik eta ondoen lotzen saiatzen ari garen arren, azken orduko ezustekoren baten beldur gara. Komunikazioak, antolakuntza barrukoak, telefono mugikorren bitartez egingo dira, Euskaltelen eskutik lorturiko telefonoen bidez, eta osasun zerbitzuekin ere bai.

Gurutze Gorrikoekin hitz egin dugu, eta ibilaldian zehar bi anbulantzi mugituko dituzte gehi beste "todoterreno" bat. Anbulantzieta-ko batean gainera sendagile bat izango dugu, eta bestean erizaina; hau Gurutze Gorriko bertako sanitario lana egiten duten bolondresez gain, eta

zirkuitua osatuaz (jendearekin batera) ibiliko dira beste hiru boluntario.

Janari eta edariak berriz, zirkuituan zehar banatuko ditugu. Janarientzat bi puntu jarri ditugu, bata Etxegaraten (irten eta hiru ordura-edo), eta bigarrena Ormakioko txabolana izango da (irten eta zazpi zortzi bat ordura). Edariak berriz, janariak dauden puntu berdinetan egongo diren arren, beste hiru puntutan ere izango dira. Puntu hauek, San Adriango aterpetxean (irten eta lau bat ordura), Arbelarko txabolan (irten eta handik sei bat ordura), eta Urbizuko gainean (bukatzeko orubete inguru falta denean) izango ditugu. Hau erabakitzea eta antolatzeak lan dextente eraman digun arren, ondo pentsatuta jarritako puntuak direla esango nuke.

Berezitasunik izango al du ibilbideak?

Ibilaldiak berak, ez nuke esango inongo berezitasunik duenik. Bakarrik aipatu, lehen ere aipatu dudana arren, oso ibilbide naturala dela, hau da, irten ibilaldi bat egi-tera, zirkuitu oso bat egin, ez bira eta bueltaka, eta etxeruntz.

Honetaz gain, aurren bada berezitasun bat, proba honi bakarrik dagokiona izan ez arren. Euskal Mendizale Federakundeak aurren lehenengo aldiz, mota honetako iraupen luzeko mendi ibilaldien "Kopa" delakoa antolatu du, eta bere egutegitan sartzeko berandu ibili ba gara ere (ez

zigun denborarik eman eta ez gara azaltzen egutegi hone-tan. Gainera, egun berean egutegian Fortunako froga azaltzen da), bertarako balio-garria izango da gure mendi ibilaldi hau ere.

Prestakuntza behar duen proba al da?


Bai, bai, bai. Mota honetako froga guztiak bezala, gurera-ko ere prestakuntza pixka bat behar-beharrezkoa ikusten dugu. Dexente kilometro eginda atera behar dela uste dugu, oinetakoetara ohituta, etab...

Partaidetza handia espero al du-zue?

Hasiera batean, 400 lagun in-gururentzat antolatzen ari ga-rra. Inguruan sentitu daitekeen giroaren arabera, partaidetza zabala izango dela ziurtatze-ko gai garela esango nuke. Berez Euskal Herri osora za-baldu dugu deialdia, bai he-goalde eta bai iparraldera. Halere, Goierriko bailara izango da oparoena gure par-taidetzari begiratuta, edo hori uste dugu guk behintzat.

- Izen emateak: non, noiz, nola... egin behar dira.

Izen emateak, maiatzaren 15etik aurrera hasiko gara izenak hartzen, eta oso era zabala izango da: telefonoz : 605729203 telefonora deituz. Web orrian : www.mendiko-web.com orriaren barruan. Posta Elektronikoz : baiestaran@orkli.es helbidean. Fa-xez : 943805245 zenbakian, Benito-ri zuzenduta.



Ibilbidea

Beasain:	159 m.
Olaberria:	342 m.
Ojarbi:	319 m.
Aran:	680 m.
Arantzamendi:	783 m.
Lizarbe:	702 m.
Unanibi:	840 m.
Etxegarate:	658 m.
Beunde:	823 m.
Añabaso:	964 m.
San Adrian:	906 m.
Aizkorri:	1.528 m.
Arbelar:	1.235 m.
Andreaitz:	1.345 m.
Zegamako apeaderoa:	819 m.
Ormakio:	819 m.
Barbaris:	450 m.
Zerain:	338 m.
Santa Engrazi:	212 m.
Urbizu:	332 m.
Errezkarate:	318 m.
Katea:	186 m.
Beasain:	159 m.

Aholkuak

Medikuen aholkuak:

- Abaila bakoitzaren gaitasunera mugatu.
- Jarri diren jateko eta edateko guneak erabili. Hau oso ga-rarrantzitsua da, desidratazio arazok, eta honelakoak ez izate arren.
- Jantziak eguraldiaren arabera antolatu.
- Oinetakoak, hanketara aurrez egokituak erabili.
- Motxila ez astunegia eraman, baina bertan beti eraman beha-rekoa: ura. Sarri-sarri edan.

Antolakuntzaren aholkuak:

- Izen ematea ahalik eta azkarren egin.
- Aurreko egunetik inork etorri nahi balu (urrutikoa delako, edo..), lo egiteko lekuren bat antolatuko dugu, hartara fresko fresko atera ahal izan dadin.
- Bukaeran, masailariak izango ditugu. Komenigarria da ma-saitxo bat hartzea bukatu ondoren, eta luzapen ariketan egin ondoren, kalanbre arazorik izan ez dadin.
- Ez korrika ibili. Goza ezazue paisaia paregabe honetaz, me-rezi du eta. Gainera, ba dira mendi ibilaldiak karrera direnak. Hau Ez da mendi karrera bat.



AZURMENDI

Harategi - Urdaitegia

Victor Mendizabal, 2 ☎ 943 88 47 65 ORDIZIA

San Inazio, 6 ☎ 943 16 16 74 - 943 16 13 28 BEASAIN



Zaldizurreta kalea

☎ 943 88 45 06

BEASAIN

Iñaki Azurmendi aizkolaria sasoi betean

Arriarandar aizkolaria aurtengo Urrezko Aizkoran 4 kanporaketa pasa ditu (Erdozia, Senosiain, Txapartegi eta Etxeberria) eta Olasagastik final laurdenetan kanporatu du. Honez gain aurtun 1. mailako txapelketan hartuko du parte. Sasoi betean dagoenaren seinale.

Espero al zenuen hain lehiaketa ona egitea?

Urte hasieratik hasi nintzen prestatzen, ondo nengoen eta banuen kanporaketa pare bat gainditzeko itxaropena. Txapartegiren aurka, gaixo egon nintzen eta beldurra nuen. Baina Etxeberriaren eta Olasagastiren aurka oso lan ona egin nuen eta gustura geratu naiz. Olasagastiren aurka galduagatik ere Etxeberriaren aurka baino denbora hobe egin nuen.

Kanporaketak telebistaz emateak, aukera gehiago ematen al du erakustaldietan ibiltzeko?

Telebistak indar handia du, aizkorarako zaletasunik ez

duten askok ere esan dit ikusi ninduela. Erakustaldiekin gustura nago iaz ere 40ren bat egin nituen. Goierriko herri gehienetan aritzen naiz eta kanpoan ere bai, maiatzean hasi eta iraila arte asteburuero izaten ditut saioak.

Hurrengo helburua, Euskal Herriko txapelketa?

Oraindik ere urruti dago, kanporaketa San Migel inguruan izango da eta finala aurrerago. Iaz lesionatuta nengoen eta ez nuen parte hartzerik izan baina aurtun 1. mailan arituko naiz. Senosiain eta Etxeberriak iaz lehen mailako finala jokatu zuten eta haien aurka irabaztea garrantzitsua da niretzat. Honek itxaropena eman dit ondo prestatu eta finalean sartzen saiatzeko. 4 aizkolaria beste guztien gainetik daude eta beste 2 postutako 6-etatik edozein sailkatu daiteke. Udan prestatzea zaila da, alde batetik erakustaldiak direla eta aizkoran asko egiten da, baina behar bezalako entrenamenduak egiteko aukera gutxi izaten da.

Apusturen bat egiteko aukera aztertut al duzu?

Neguan egitea ondo legoke,

Beasaingo jaietan 2 erakustaldi



Asteartean, 14an, berak bakarrik egingo du erakustaldia. 2 metro t'erdia inguruko zirkunferentzia duen enborra ebakiko du, haritzaren antzeko lorategiko egurra da. 19an herrikirol erakustaldia izango da, harri jasotzen Perurena aita-semeak eta Goenatxo; aizkoran Arrospide eta Arria Olasagasti eta Azurmendiren aurka.

horrek beti ere prestatzeko eta entrenatzeko motibazioa ematen du, oinarri ona hartzeko.

Gazte gutxi dabil aizkoran.

Gazteak ateratzea zaila da, orain egurra garesti dago eta hasterako milioi erdi bat gastatu behar da egurretan. Aizkoratan ere asko gastatzen da eta hasieran, gainera, gehiago hondatzen dira. Lana ere asko eskatzen du, ordu erdia entrenatzeko aurretik ordubeteko lana dago egurrak prestatzen. Ez bada aitzak zaletasun han-

dia duela eta asko lagundu diola, oso zaila da. Baserri giroa ere geroz eta gutxiago dago eta zaila da. Gazteenak Arria V., ni eta besteren bat gara. Hortik behera ezer gutxi dago.

Oraindik era zaharrak nagusi.

Oraindik 29 urte ditut eta goraka joateko itxaropena, aizkoran indarra baino garrantzitsuagoa da aizkoran ondo egitea eta hori denborarekin ikasten da, aizkolaria hobereanean 40 urtera gerturatzean egoten dira.

ARTANE

- Liburuak, Aldizkariak...
- Eskulanak
- Eskolarako gaiak

Andra Mari, 1

943 16 16 72

BEASAIN



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

943 88 87 02

BEASAIN

LURRAZPIKO
JAIA !!



ARANA, 1

943 88 93 88

BEASAIN



ITURRALDE, 1
BEASAIN

943 16 19 39



ZALDIZURRETA, 1
BEASAIN

943 16 19 35

Igartza futbol zelai berria inauguratu da Beasainen

Belar artifizialeko zelaia, publiko osoari zabalduta dago

Apirilaren 27an inauguratu zen Beasainen, Igartza futbol zelai berria. Belar artifizialeko futbol zelaia da. Erabilera zabala izango du futbol zelaia: arratsaldeko 4ak aldera arte ikastetxeen zerbitzura egongo da. Handik aurrera, herritar guztien zerbitzura. Softbolean jokatzeko aukera ere izango da.

Futbol zelai berriak 95x55 metroko neurria du, hesi batek inguratua dago eta baliak babesteko 9 metroko altueradun sarea du. Azken belaunaldiko belar artifizialeko futbol-zelai berriak, futbol, futbol-7 eta softbol partiduetarako eta entrenamenduetarako balioko du.

350 ikuslerentzako eserlekuak dituen harmaila estaliak



ditu. Lau aldagela, erabiltzaile eta ibiltarientzako komun publikoak eta 50 ibilgailu ingururentzako aparkalekuak ere baditu.

Zutik egongo diren ikuslentzat 2 metroko zabaleradun ingurune bat du, baita instalazioa kanpoaldetik inguratuko duen footing egiteko pista bat ere. Etorkizun hurbilean taberna-zerbitzuaren instalazioa ere jarriko da.

Kirolaren Udal Erakundeak izango du futbol-zelaiaren gestioa eta gainerako instalakuntzen funtzionamendu bera izango du. Bazkideek dohaiarik izango dute eta bazkide ez direnek, helduek, 4 euro ordaindu beharko dute eta 18 urte artekoek 2 euro. Antzizar Kiroldegian hartu behar da eguna eta ordua. Ordutegiari dagokionean, arratsaldeko 4etatik 9,30etara egongo da irekita. Dena den, eskaeren arabera irekiko dira atak.



- Esku lanak
- Ikastaroak
- Ofariak
- Enmarkazioak

© 943 65 55 77 © 943 88 40 56
Nafarroa Etorb., 10 J.M. Iturrioz, z/g
TOLOSA BEASAIN



Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33

BEASAIN

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

ZINEA

ITSASONDO

Maiatzak 10, 'Las edades de Lulu'. 22:00etan. Ertoetxen.

Maiatzak 17, 'Cuentos calientes'. 22:00etan. Ertoetxen.

bertsoak

ALTZAGA:

Maiatzak 12, Jexux Mari Irazu eta Millan Telleria, 13:00etan.

BEASAIN:

Maiatzak 14, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia, Loinazko San Martin plazan, 12:45ean eta 19:30ean.

musika

BEASAIN:

Maiatzak 10, Loinatz eta Loinatz Txiki abesbatzen eta Musika Eskolako abesbatza-ren kontzertua, 20:30ean, Andra Mari Zeruratuaren parrokian.

Maiatzak 11, Briganthya folk-taldea, Loinazko San Martin plazan, 19:30ean.

Maiatzak 13, Egan, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan eta 23:00etan.

Maiatzak 17, Rock kontzertua, Gipuzkoa plazan, 22:30ean.

Maiatzak 17, 'Ultima hora' orkestra, Loinazko San Martin plazan, 22:30ean.

Maiatzak 17, 'Francisco Ribelles eta bere mariatxia-ren ikuskizuna, Loinazko San Martin plazan, 00:15ean.

Maiatzak 18, Oropendola orkestra, Loinazko San Martin plazan, 23:00etan.

Maiatzak 19, Zumaiako Musika-bandaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan, 13:00etan.

LEGORRETA:

Maiatzak 9, Musika Eskolako haurren kontzertua, Herri Zineman, 12:00etan.

Maiatzak 9, Mikel Telleria-ren kontzertua eta disko berriaren aurkezpena, 23:00etan, Harripila kiroldegian.

ORDIZIA:

Maiatzak 15, Oskorri taldearen 'The pub ibiltaria', Herri Antzokian, 19:00etan.

SEGURA:

Maiatzak 9, Tobera Musika Eskolako Hizkuntza Musika-leko ikasleen erakustaldia Aldundiaren Aterpetxean, 17:30ean.

ZEGAMA:

Maiatzak 13, Tobera Musika Eskolako gitarrako ikasleen entzunaldia, Kultur etxean, 18:15ean.

pailazoak

BEASAIN:

Maiatzak 12, Kiki eta Moko pailazoen 'Amalurra bihotzean' ikuskizuna, Joan Iturralde plazan, 17:30ean.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Maiatzak 11-12: Atorrasagasti (Bustuntza auzoa - Ordizia). 943 882938.

Maiatzak 18-19: Azpilikueta (Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.



Kubako bidaietan berezitasuna

Hirigoien, 12 LAZKAO
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es



Abokatuak Enpresen asesoria eta gestioa

e txekin

www.txekin.net

Etxebizitzen salmenta: Legorreta Beasain Orendain

Tel/Faxa: 943 162 393 e.posta: zuzenki@euskalnet.net Elosgi, 16 LAZKAO

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

hitzaldiak

BEASAIN:

Maiatzak 15, Dulce Maria Loinazen bizitza eta egindako lanei buruzko hitzaldia eta solasaldia. Udaletxeko Batzar aretoan, 19:00etan. Hizlariak: Hortensia Viñes eta Isidoro Sanchez Garcia.

dantzak

BEASAIN:

Maiatzak 12, Beasango II. Dantza Topaketak: euskal dantza-taldeen dantza-saioa, Loinazko San Martin plazan, 18:30ean.

Maiatzak 18, Saloiko dantzen, sevillar dantzen eta ballet-dantzen erakustaldia, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

Maiatzak 19, VI. Dantza Libreko lehiaketa, Loinazko San Martin plazan, 19:00etan.

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Lig-nae erakusketa, Igartza jauregian.

Maiatzaren 17ra arte, Iñaki Mariñelarenaren zeramika erakusketa, Aterpe tabernan.

Maiatzaren 18tik ekainaren 7ra arte, Asier Larrazaren argazki erakusketa, Aterpe tabernan.

Maiatzaren 12tik 26ra, Argizpi elkarteak antolaturiko lehiaketara aurkeztutako argazkiak, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

Maiatzaren 24ra arte, Martine Pinsolle artistaren pintura erakusketa, Barrenan.

Izurri taldearen kontzertuak

Disko berriaren aurkezpeneko kontzertuak ematen ari da Izurri taldea. Datozen bi kontzertuak dituzue jarraian:

Maiatzak 10, Arrasaten.

Maiatzak 11, Olaztin, Gaztetxean.

Dulce Maria Loinaz olerkaria gogoan

Maiatzaren 15ean, Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan, solasaldi literarioa izango da Dulce Maria Loinaz olerkariaren inguruan. Hortensia Viñesek 'Dulce durmiente de Cuba' izeneko liburua aurkeztuko da. Liburuan, Dulce Maria Loinazen bizitza eta lana aztertzen ditu.

Dulce Maria Loinaz 1904an jaio zen Kuban. 1992an Cervantes saria irabazi zuen olerkari kubatarra, Loinazko San Martinen familiakoa zen. Bere aita, Enrike Loinaz, Kubako independentziaren gerra askapen armadako jenerala izan zen. Dulce Maria bera Beasainen egon zen 1947an. Bidaia hartatik harreman sendoa sortu zen orduko 'Beasain Jaietan' aldizkaria egiten zutenekin. Aldizkarian laguntzen hasi zen eta 14 urte eman zituen bere kolaborazioak bidaltzen. 1953an ere izan zen Beasainen eta orduan omenaldia egin zion Udalak.

Igartza Multimedia gunea

Maiatzaren 17an inauguratuko da Igartzako multzoaren multimedia informazio gunea. Multimedia, web orriaren antzekoa da. Ezberdintasun bat badu, ordea: ez dago interneten sartu beharrik, tokian bertan dagoen ordenagailu batean sartua dago informazio guztia. Informazio hori, multimedia eran eskaintzen da, alegia, bideoak, animazioak, testuak, argazkiak eta ahotsa zein musika, dena elkarrekin doa.

Guneak modu interaktiboan funtzionatzen du. Bisitariak dagoen informaziotik nahi duena aukera dezake ordenagailuan sagua erabiliz. Multzoa multimedia sistema horren bidez bere osotasunean ezagutzeko 30-40 minutu behar dira. Guztiaren aurkezpena, Udaletxeko Batzar aretoan egingo da, 19:00etan.

Osakidetzako erizain laguntzailetarako oposaketak prestatzeko ikastaroa

Beasaingo Emakume Elkartean, Asmuben, maiatzaren 3an hasi zen Osakidetzako erizain laguntzailetarako oposizioak prestatzeko ikastaroa. Ekainaren 28an bukatuko da. Harremanetarako telefono zenbakia: 943884840.

IKASTEK AKADEMIA

2002.eko UDA

Tailerrak: irakurmena, idazmena, matematika

Datorren ikasturterako prestaketa:

- * Euskara, ingelera
- * Fisika, kimika
- * Latina
- * Matematika
- * Testu komentatuak
- * Maita eta gai guztiak

Selektibitatea, unibertsitateko prestaketa.

Unibertsitate maila

- * Goierriko Unibertsitatea
- * Psikologia, farmazia
- * Enpresaritza
- * Etab.

ikastekakademia@latinmail.com

http://usuarios.tripod.es/ikastek

☎ 943 160 120

Joan Iturralde, 5 BEASAIN

URBITARTE

tolare
sagardotegia




Eraman sagardoa etxera eta dastatu nahi duzunean:

Sagardoa
botilan
salgai

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa ATAUN



Ekainaren 22ra arte
sagardoa txotxetik

Sagardotegiko menua eta
arraina parrilan

Etxebizitzak

salgai

➔ Ordizian, Urdaneta kalean, pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea eta komuna. 943885664.

➔ Etxea salgai Legorretan. 3 logela. Trasteroa. 13 milioi pezeta inguru. 943084189.

➔ Etxebizitza salgai Legazpin. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Sukaldean eta komunean obra egina. 686426979. 21:00etatik aurrera deitu.

➔ Etxebizitza salgai Ormaiztegin. 2 logela, egongela, sukaldea jan-tzia. Oso eguzkitsua. Bista onak. 626170647.

➔ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

➔ Etxebizitza salgai Ikaztegiatan. 127 m². Estreinatua gabea. Tren geltoki ondoan. Garajearekin. 607085145. 5etatik aurrera deitu.

konpartituak

➔ Pisukide bat bilatzen da Beasainen pisua konpartitzeko. 653735094.

➔ Madrilen ikasleekin etxea konpartitzen dugu. Mutil ez erretzaileak. 914095390.

errentan hartu

➔ Etxebizitza alokatuko nuke Beasainen. Ekonomikoa. 616730421.

errentan eman

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948539381.

Pabilioiak

salgai

➔ Itsasondan Ibai-ondo industrialdean 7. pabilioia salgai. 212 m². Altura 9 metro. Prezio interesgarria. 652775737.

Ibilgailuak

salgai

➔ Aprilia scooter SR-50 DI motorra salgai. 615754725.

➔ Renault Espace turbo diesela salgai. Egoera onean. Merke. 657702174.

➔ Golf-II GTI salgai. SS-AC. 300.000 pezetan. 655716395. Gaue-tan deitu.

➔ Citroen Berlingo salgai. 5 urtekoa. 943887246.

➔ Peugeot 205 salgai. 1900 diesela. Txuria. 3 atekoa. SS-AF. 943885024.

➔ Yamaha TZR (50 c.c) motorra salgai. Egoera onean. Prezio interesgarria. 943885147. 20:00etatik aurrera deitu.

➔ Trialeko Beta motorra salgai. 250 cc. 225.000 pezeta - 1.352,27 euro. Ibon. 696420258 - 943889503.

➔ Volkswagen furgoneta salgai. Sukalde, berogailu eta ohearekin ekipatua. 620860285.

➔ Honda CBR 600 motorra salgai. SS-AJ. Egoera onean. 500.000 pezeta - 3.000 euro. 636563841.

➔ Rover 216, SS-W, salgai. Beti garajejan egona. 94.000 km. Gurpilak, korreak eta beste zenbait atal berriak. Oso ondo zaindua. Merkea. 656415505.

➔ Trialeko motorra salgai: Montesa Cota 315. (99. urtekoa). 943766401 - 943731282.

➔ Kotxea salgai: Tata Safari todo terrenoa EX. Urtebete dauka. 943683552.

➔ Yamacha YZ motorra salgai. 80 cm³koa. Egoera onean. 943806502. Iluntzetan deitu. Joxean.

➔ Piaggio Typhoon motorra salgai. 125 cc. Urdina. 6.200 km. Ondo zaindua. 943086857.

Animaliak

salgai

➔ Pastor Aleman arraza oneko txakurkumeak salgai. Pedegreearekin. 626523064.

➔ Arraza oneko Brako aleman txakurkumeak salgai. 35.000 pezetan. Juantxo. 650183935 - 943881387.

Denetik

eskerrak

➔ San Judasi eskerak. E.Z.

GABINETE PSIKOLOGIKOA

Pedro Jose Landa Gutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

ARPE

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezunik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ezk. BEASAIN

IÑAKI AZURMENDI

Herri kirol erakustaldiak

BEASAIN

☎ 943 16 16 74
☎ 616 44 66 22




XENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619.487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak
BEASAIN



Bestelakoak

salgai

➔ Garbigailua, labadora, salgai. Egoera oso onean. Prezio interesgarria. 661700392.

➔ Gas Gas TXT 321 motorra salgai. 2001. urtekoa. Prezio interesgarria. 669688547.

➔ Sutarako haritz egurra salgai. 2 metrora moztua. Merke. 676882842.

➔ Esolatarako gaztaina txertakak saltzen dira. Merke. 676882842.

➔ Idazteko bi makina salgai, Olivetti Estudio 46 eskuzkoa eta Panasonic R194 elektrikoa. Biak egoera onean eta prezio interesgarrian. 943806176. 21:00etatik aurrera deitu.

➔ 7 oktabadun Furst-tein etxeko pianoa salgai. Neurriak: 1380 x 500 x 1030 mm. 943086610.

➔ Ordenagailuan ikus-terko pelikulak (div-x formatoan), The Simpsons-eko 248 kapitulu (12 cd), programak, musika cd-ak eta Dreamcast-erako jokoak saltzen ditut oso prezio onean, (2,1 euro/cd). Seriotasuna. 658751318.

➔ Beretta A304 Silver Lark eskopeta salgai. Gutxi erabilia. Ibon. 696420258 - 943889503.

➔ Errepideko txirrindua salgai. 51 neurrikoa. Manetekin. Ondo zaindua. 50.000 pezeta / 300 euro. 943882955 (13:00etatik 15:00etara edo 21:00etatik aurrera deitu).

➔ Gurdi-denda erosi-ko genduke, 4 pertsonentzako. 943881978. Eguerdian edo gauan deitu. arrietabeo@euskalnet.net

erosi

Lana

eskaerak

➔ Emakumezko bat behar da, Idiazabalen haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943187267. Iluntzetan deitu.

➔ Gizonezko bat behar da Goierrialdeko okindegi batean lan egiteko. 652734213. Mezua utzi mesedez.

➔ Neska euskalduna behar da Seguran okindegi lan egiteko. 943801820. Arratsaldeko 5,30etatik 8etara deitu.

➔ Beasainen neska euskalduna behar da ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943880845.

➔ Neska euskalduna behar da zerbitzari lanerako. 943655848.

➔ Pertsona euskalduna behar da tabernan astebukaeran lan egiteko. 943160205 - 943886577.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

ESKUZKO MOLDEATZAILEA
Tolosan. Erref. 77646/3

ERREBABATZAILEA
Tolosan. Erref. 77644/3

KIROL DINAMIZATZAILEA
Goierri. Erref. 76566/3

TORNEROA, FRESADORE KONBENTZIONALA
Billabonan. Erref. 71532/3

GIZA BALIABIDEETAN TEKNIKARIA
Bordelen (Frantzia) Erref. 77650/2

eskaintzak

➔ 24 urteko neska prest dago arratsaldetan haurrak zaindu eta dendetan lan egiteko. 661700392.

➔ Neska euskalduna eskaintzen da astean zehar egunean pare bat ordu, garbiketa edo antzeko lanak egiteko. 619601111.




ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

Autowag, s.a.




☎ 943 888 254 943 888 266 Faxe: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km BEASAIN



LAZKAOKO MAIZPIDE
euskaltegia barnetegia

XXVIII. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

✓ URRATS ETA MAILA GUZTIAK
Alfabetatzen
Hizkuntz eskakizunak
Alfabetatze teknika
Sakontzen
IRALEko goi-mailako ikastaroak

✓ 6 IKASTORDU EGUNEAN, BARNETEGIAN NAHIZ KLASEAK BAKARRIK

INFORMAZIO GEHIAGO Tel.: 943 88 92 31 Faxe: 943 88 92 32
e-posta: lazkao@maizpide.com


HABEren dirulaguntzaz.

UZTAILA:	1/19
ABUZTUA:	5/30
IRAILA:	2/27



Alkartasuna Lizeoko ikasleak 1972-73 ikasturtean

Beasaingo Alkartasuna Lizeoan 1972-73 ikasturtean Isabel Olanorekin 3. maila egiten ari ziren ikasleak dira argazkikoak. **Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera:** Ana Rosa Aldasoro, Mari Jose Imaz, Idoia Arteaga, Isabel Olano (andereñoa), Kristi Jauregi eta Eburne Dorronsoro. **2. ilaran:** (Praktikatako irakasle bat?), Silvia Muñoz, Alicia Zabaleta, Anabel Aiestaran, Arantxa Asla, Elisabet Insausti, Remi Irazustabarrena, Nekane Lizarralde, Amaia Esnal, Josune Oiarbide, Idoia Dorronsoro, Arantxi Aierbe eta Miriam Uribe-Etxeberria. **3. ilaran:** Santi Garin, Jon Jauregi, Jose Luis Argiñano eta Imanol Galarreta. **4. ilaran:** Iñigo Herrarte, Xabier de la Fuente, Patxi Saez, Javi Aldasoro, Peio Ruiz eta Txomin Bikuña.



Ondo pasa festetan!



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



**ILEAPAINDEGI
MISTOA**

Festa onak pasa!

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arteak)
Tfnoa.: 943 16 11 05 BEASAIN

GOISYSTEM

Informatika aplikazioak



- ✕ Ordenadore salmenta
- ✕ Konponketa
- ✕ Informatika ikastaroak
- ✕ Etxeko zerbitzu teknikoak

Joan Iturralde, 1

☎ 943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN



HARRIA GRESAK

BAINUGINTZAKO PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak guztioi!

jantzi
galaz
zure
bainugelak



HARRIA GRESAK

**Diseinuan beti
aintzindari**

*Bisita gaitzazu eta ezagutu
bainugintzako azken moda*

Tel.: 943 88 54 66 Faxa: 943 16 19 75

Zelaeta, 1 BEASAIN

IGARATZ ILEA PAINDEGIA

☎ 943 883 180 Nafarroa Etorbidea, 6 BEASAIN

*Estetika
Solariunak
Masajea*



**Gabon zoriontsuak
eta Urte Berri on!**





poltsiko bakoitzarentzat prezio bat daukagu

eta osagaietan dena...

OHEAK ETA OSAGIAK • ZORRO NORDIKOAK • BURUKOAK • IZARAK • KOLTZOI-ESTALKIAK • ALFONBRAK
KUTXINAK • GORTINAK • BESALUKI MANTAK • LUMA-EDO FIBRAZKO NORDIKOAK



NAGUSIA, 40 - C.P. 20200 -

BEASAIN - TEL/FAX: 943 88 68 51

ETA UDABERRIKO
KANPAINAN

400€

RAINOKO AURREZPENA
SWISSFLEX OHETAN

ETA OHE ZAHARRA DOHAIN
KENTZEN DIZUGU



GOIERRIKO BANATZALE OFIZIAL BAKARRA



K I M E T Z

I L E A P A I N D E G I A

UNISEX ILEAPAINDEGIA

HAURREKIN BEREZITASUNA

SOLARIUMA - 12 SESIO 36

EZTEIAK ETA JAUNARTZEAK

EXTENSIOAK

RASTAK

KERATINA ETA

SILIKONAZKO JOSIAK



TEL. 943 88 14 42 MENDEURREN ETORBIDEA, 2 BEASAIN